
VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN

GIDA-PLANA 2016-2019

UDAL GAIAK BILDUMA



VITORIA-GASTEIZKO UDALA
GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
GIDA-PLANA 2016-2109

AURKEZPENA

1 SARRERA	7
1.1 Zertarako bigarren gida-plana?	8
1.2 Kontsentsua oinarri duen lankidetzaren politika.....	8
1.3 Gida-plana nola landu den	8
1.4 Malgutasun-irizpidea	9
1.5 Erantzukizunaren printzipioa	9
1.6 Dokumentuaren ikuspegia.....	10
1.7 Gida-planaren egitura.....	10
2 LEHEN ZATIA: OINARRIAK	11
2.1 Marko teorikoa.....	12
2.2 Lankidetzarako nazioarteko marko berria: garapen jasangarriko helburuak.....	13
2.3 Lege- eta arau-markoa	15
2.4 Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren ibilbidea.....	16
2.5 Udal lankidetzaren agenteak eta horien gaitasunak	18
2.6 Udalen lankidetzaren espezifikotasuna	19
3 BIGARREN ZATIA: MARKO ESTRATEGIKOA	21
3.1 Egitekoa.....	22
3.2 Ikuspegia.....	22
3.3 Helburuak	22
3.4 Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia.....	22
3.5 Gidalerroak	23
3.6 Politiken koherentzia	31
3.7 Bi arlo tradizional eta esploratzeko bide berriak	32
4 HIRUGARREN ZATIA: LANKIDETZAN JARDUTEA Lankidetzaren alorreko marko operatiboa	33
4.1 Garapenerako lankidetzaren motak eta osagaiak.....	34
4.2 Garapenerako lankidetzaren GGKEen eta bestelako herritar-entitateen bidez: alderdi orokorrak.....	34
4.3 GGKEei eta herritar-entitateei diru-laguntzak emateko tresnen deskribapena.....	37
4.4 Izaera municipalistako lankidetzaren.....	41
4.5 Kalitatea eta efikazia hobetzeko neurriak.....	45

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala

Testuen lanketa: Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila
Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

Maketazioa: Komunikazio Bulegoa

2016ko apirila

5 LAUGARREN ZATIA HIRIAN JARDUTEA. Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren marko operatiboa	49
5.1 Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza: ikuspegiak eta esku hartzeko moduak	50
5.2 Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza, GGKEen bitartez.....	51
5.3 Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua	55
5.4 Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, udal programen baitan	55
5.5 Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari dagozkion jarduerak	61
5.6 Kalitatea eta efikazia hobetzeko neurriak.....	63
5.7 Partaidetza	63
6 BOSGARREN ZATIA: ESTRATEGIA ETA ESPERIENTZIA BERRITZAILEETARAKO LAGUNTZA	65
7 SEIGARREN ZATIA: PLANAREN ERAGINKORTASUNA - BALIABIDEAK, EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	69
7.1 Giza baliabideak	70
7.2 Garapenerako lankidetzarako aurrekontua	70
7.3 Aurrekontuaren banaketa, arlo eta tresnen arabera	71
7.4 Planaren emaitzak eta adierazleak	71
7.5 Planaren jarraipena	77
7.6 Planaren ebaluazioa.....	77

1. SARRERA

1.1 Zertarako bigarren gida-plana?

Nahiz eta 1988. urtean ekin zion Gasteizko Udalak garapenerako lankidetzari, 2010. urtera arte ez zuen onetsi Garapenerako Lankidetzaren I. Gida-plana, zeinek 2010-2013 aldia hartzen baitzuen, eta *de facto* luzatu egin baitzen 2014an. 2015ean egin zen planaren ebaluazioak agerian utzi zuen ez zela espero bezala garatu eta bete, batez ere aldi horretan aurrekontuekin izan ziren gorabeheren ondorioz. Ebaluazioan modu positiboan baloratu zen aurreko planaren ikuspegia, eta plan berri bat martxan jar zedila gomendatu zen.

Egitan, garapenerako lankidetzaren alorreko politika publikoen koherentziaren eta ko-hesioaren ikuspuntutik, komenigarri da galdera egitea, beharrezkoa den ala ez erakunde bakoitzak gida-plan propioa edukitzea. Nolanahi ere, Gasteizko Udalaren ezaugarri behinenetako bat izan den lankidetzaren politika berreraikitze borondatea abiapuntu zelarik, aintzat hartu zen ebaluazioan egindako gomendioa, eta plan berri bat lantzeko agindua eman zitzaion Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari —udal lankidetzaren alorreko agenteen eta, bereziki, Gasteizen diharduten garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen partaidetzarekin landu ere—.

1.2 Kontsentsua oinarri duen lankidetzaren politika

Planaren indarraldiak udal agintaldiarekin bat egiten badu ere, Udalean ordezkaturik dauden indar politiko guztiek bere egiten duten politika aukeratu du Gasteizko Udalak garapenerako lankidetzaren alorrean, beste aukera batzuk alde batera utzirik.

Ezin ahaztu, hala ere, hainbat arlo ukitzen dituela “giza garapenak”; gobernantzaren, giza eskubideen nahiz politikaren arloko hainbat kontu, baita alderdi ekonomiko, sozial eta ingurumenaren arlokorik ere, non, logikoki, aldeak dauden filosofia eta aukera politiko batzuen eta besteen artean. Ezin uka, era berean, lankidetzaren programa eta -ekintzek beren testuinguruan izan ditzaketen inplikazio sozial eta politikoak, aktore jakin batzuk sendotzen baititu lankidetzak.

1.3 Gida-plana nola landu den

2015ean egin zen ebaluazioan jasotzen ziren konklusio eta gomendioak izan dira abiapuntu, gida-plan hau lantzeko orduan.

Orobat hartu dira aintzat Gasteizen lankidetzaren alorrean diharduten agenteen ekarpenak:

- Alde batetik, partaidetza-prozesu bizkor bat zertu zen —GGKEekin eta beste agente batzuekin—, eta, horren baitan, organizazioei zuzendutako galdeketa txiki bat egin zen, proposamen idatziak aurkeztu ziren, lau lan-saio egin ziren 2015ko urritik abendura bitartean, eta hainbat zuzenketa egin zitzaizkion zirriborroari. Hemezortzi erantzun jaso zituen galdeketa, hamar proposamen idatzi aurkeztu ziren eta, guztira, hogeita lau organizaziok eta Udalean ordezkaturik dauden sei talde politikoek parte hartu zuten lan-saioetan.

- Bestalde, proposamenak trukatu ziren lehendik Garapenean Laguntzeko Zerbitzua-ekin elkarlanean jardun izan duten zerbitzuekin, eta Gizarte Politiken Sailaren nahiz Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzua-ekin eta Gazteria Zerbitzua-ekin (Alkatetza Saila) konpromisoak jaso ziren, baita Gasteizko Udal Urak SAREna (AMVISA) eta Ingurugiro Galetarako Ikastegiarena ere.

1.4 Malgutasun-irizpidea

Malgutasun-tarte erlatiboa uzten du Gasteizko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren Gida-planak. Bereziki bi zirkunstantziari zor zaio hori:

- Udalean bertan, gaur egun lantzen ari diren edo burutzekotan dauden beste arlo batzuetako planek ere eragingo diote Garapenean Laguntzeko Zerbitzua-ekin jarduketari. Besteak beste, bereziki aipatzekoak dira Bizikidetzaren plana, Gazte-plana eta Berdintasun-plana. Era berean, berrikuste-aldian dago diru-laguntzetarako deialdien sistema.
- Orobat hartuko dira aintzat Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren plan-gintza eta ekimenak; izan ere, euskal erakunde batzuen eta besteen lankidetzaren politikak hobeto koordinatzeko pausuk ematen ari baita agentzia hori.
- Era berean, kontuan izanik garapenerako lankidetzaren arloan organizazio bereberekin dihardutela elkarlanean Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, aintzat hartuko dira aldundiak lantzen dituen lan-ildoak, elkarrekin koordinatzea eta elkarrekin osagarri izatea helburutzat harturik.

1.5 Erantzukizunaren printzipioa

Aurrekaria aintzat harturik, hots, aurreko planeko aurrekontu-konpromisoak ez zirela bete, Garapenerako Lankidetzaren 2016-2019ko Gida-plana konpromiso sendo batekin onesten da, horretara bideratuko diren baliabideei dagokienez:

- Alde batetik, urtero garapenerako lankidetzarako aurrekontu bat¹ onartzeko konpromisoa hartzen du Gasteizko Udalak, ohiko diru-sarreraren —hots, udal aurrekontuko diru-sarreraren 1. kapitulutik 5.era arteko kapituluaren— % 0,7tik % 1era artekoa.
- % 0,7aren eta % 1aren arteko hori aski diru-kopuru handia izaki —1.000.000 euro inguru, 2016an—, bistan da zailtasunak dakartzala horrek hainbat urterako plangintza egiteko orduan, eta, hortaz, programa jarraitu edo hainbat urtekoetara funtsean % 0,7 bideratzea hartu da irizpidetzat.

¹ Lankidetzarako aurrekontua kalkulatzeko orduan, ez dira aintzat hartuko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko langileen kostuak.

1.6 Dokumentuaren ikuspegia

Hauxe izan nahi du planak:

- 2016-2019 aldiko garapenerako lankidetzaren politika xehatzen duen dokumentua,
- non lankidetzaren tresnei aplikatzekoak diren ildo nagusiak azaltzen diren,
- eta aldi horretarako aurreikusten diren lankidetzaren tresna eta -modalitateak zehazten.

Plan honek neurri handi batean aurreko planaren ikuspegia bere egiten duenez, landu den dokumentuan ez dira zehaztu hartan jaso ziren oinarri teorikoak eta kontzeptuen inguruko eztabaidak.

Dokumentua batez ere operatiboa izatea nahi da, eta gidalerroak markatzea, baina behar denean inguruko zirkunstantzietara egokitzeko ahalmena mugatu gabe, eta ekimen berriak martxan jartzea galarazi gabe, Udalaren lankidetzaren ezaugarri izan baita hori beti.

1.7 Gida-planaren egitura

Lehenengo zatian —Oinarriak—, ezinbesteko kontzeptu teorikoak eta aplikatzeko den lege-markoa biltzen dira, baita garapen jasagarriko helburuen markoa ere, eta Udalak garapenerako lankidetzaren arloan egindako ibilbidea eta horren agenteak zein diren laburtzen. Era berean, udalen lankidetzaren espezifikotasuna berresten da.

Bigarren zatian —Marko estrategikoa—, gida-planaren egitekoa, ikuspegia, helburuak eta gidalerroak biltzen dira —gidalerroak dira muina—. Bi jarduera-eremuen arteko bereizketa argi uzten du: batetik, garapenerako lankidetzaren, eta, bestetik, garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza. Beste udal politika batzuekiko koherentziaren aipamen laburra eginez bukatzen da.

Hirugarren zatia —Lankidetzaren jardutea—, garapenerako lankidetzaren marko operatiboa da. Laburki azaltzen da zer-nolako lankidetzaren bideratu nahi den, eta, bidenabar, GGKEek eta beste herritar-erakunde batzuek garatzen duten lankidetzaren ezaugarriak biltzen, baita, azkenik, udal lankidetzaren ere.

Laugarren zatia —Hirian jardutea—, garapenerako sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren marko operatiboa da. Lortu nahi den sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren ikuspegia abiapuntutzat harturik, GGKEei zuzendutako tresnak eta beste udal zerbitzu batzuekin elkarlanean gauzatuko diren programak zehazten dira, baita Garapenerako Laguntzeko Zerbitzuari dagozkion jarduerak ere.

Bosgarren zatian —Estrategia eta esperientzia berritzaileei laguntzea—, garapeneraren alorrean sortzen ari diren ikuspegiak eta proposamen berriak bideratzeko martxan jarriko diren esperientzia pilotuen nondik norakoak azaltzen dira.

Plana taxutzeko orduan, hiru alderdi nagusi hartu dira oinarritzat: gidalerroak, agenteak eta baliatuko diren tresnak, zeinen interrelazioaren ildotik joango baitira zehazten Udalaren garapenerako lankidetzaren edukiak.

2. LEHEN ZATIA: OINARRIAK

Marko teorikoari buruzko gutxieneko apunteak hartzen dira abiapuntutzat, eta garapen jasangarriko helburuek eskaintzen duten marko berria. Aplikatzekoa den lege-markoa aintzat hartzen da, eta Gasteizko Udalak garapenerako lankidetzaren arloan urratutako bidea, baita aktoreak zein diren ere. Udal lankidetzaren espezifikotasuna berresten da.

2.1 Marko teorikoa

Gida-planean ez da marko teoriko propioa garatu nahi izan; besterik gabe, plana bera funtsatu eta interpretatzeko ezinbesteko diren kontzeptu teorikoak bildu dira bertara.

2.1.1 Oinarrizko kontzeptuak

Aurreko planeko oinarrizko kontzeptuak biltzen dira —nazioarteko erakundeek onetsitako definizioak edo aplikatzekoa den legedian bertan jasotzen direnak—:

- Garapen jasangarria (Bruntland txostena, 1987)
- Giza garapena (PNUD, Giza garapenaren txostena, 1990)
- Pobrezia (PNUD, Giza garapenaren txostena, 2001)
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna (4/2005 Legea, otsailaren 18koa)
- Bidezko merkataritza (*World Fair Trade Organization* - Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea)
- Garapenerako hezkuntza (Espainiako Lankidetzaren Gida-plana 2009-2012)

2.1.2 Elkartasuna, topaketa gisa

Hain ezaguna ez den kontzeptua izaki, uste dugu egoki dela berriro ere lerro hauetara ekartzea “elkartasuna, topaketa gisa” kontzeptua, Luis Alfonso Arangurenek definitua:

“Elkartasunak, topaketa gisa, lehenik eta behin, minaren eta bidegabekeriaren munduarekin topatzea eta axolagabe ez jokatzearen esperientzia esan nahi du, eta, bigarrenik, beste modu batera pentsatzeko eta bizitzeko gaitasun nahikoa izatea: pentsatzeko gaitasuna, hau da, bizi dugun gizagabetasun eta bidegabekeriazko errealitatea ahalik eta modu objektiboenean aztertzeke, azterketaren pisuak gainezka egin gabe. Bere burua solidariotzat jotzen duenaren bizi-proiektuan elkartasuna oinarrizko zutabe izateko moduan bizitzea.”²

2.1.3 Garapenerako hezkuntza

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean, honela definitu zen garapenerako hezkuntza:

² Luis Alfonso Aranguren Gonzalo, *Educar en la reinvencción de la solidaridad*, 22. Bakeaz koaderno, 6. orria, Bakeaz, Bilbo, 1997.

Garapenerako heziketa honako xede hauek dituena da: Iparraldearen eta Hegoaldearen garapen ezberdinarekin zerikusia duten arazoaren arrazoi eta ondorioak ezagutaraztea, herritarrengan arazo horien gaineko kontzientzia kritikoa piztea eta arlo horretan elkartasuneko eta konpromiso aktiboko jarduerak eragitea. Garapenerako heziketaren kontzeptuaren barruan sartuta daude gizartean sentsibilizazioa eragiteko ekintzak, prestakuntza-ekintzak eta ikerketa-ekintzak.

Garapenerako hezkuntzaren kontzeptuak etengabeko bilakaera izan du sortu zenetik. Aurreko planak ‘herritartasun globalerako hezkuntza’ kontzeptua egiten zuen bere, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, berriz, ‘gizartea eraldatzeko hezkuntza’ proposatzen du. Laugarren zatian azaltzen dira bi kontzeptu horiek.

2.1.4 Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza

Ondorio praktikoa eta metodologikoetarako, uste dugu egoki dela bi horien arteko bereizketa egitea, eta bata nahiz bestea ongi definitzea:

- **Sentsibilizazioa:** Mundu globalizatuko berdintasunik ezaren eta bidegabekeriaren inguruko informazioa eta mobilizazioa, Hegoaldeko herrialdeetako egoerari arreta berezia eskainiz, baina geure inguruan bertan dituzten eta izan litzaketen ondorioak ahaztu gabe. Lankidetzak-ekintzei eta giza eskubideak babesteko ekintzei buruzko informazioa. Ekintza puntualak eta noizbehinkakoak dira, hartzaile-talde zehaztugabeak, herritarrei oro har edo talde zehatzei zuzenduak, baina jarraitutasunik gabeak. Bidegabekeriak bistaritzen ditu, baina arrazoiaren sakondu gabe. Epe laburreko eginkizuna da. Kontzientziazioaren lehen urratsa da.
- **Garapenerako hezkuntza:** Ongi zehaztutako taldeei zuzendutako hezkuntza-prozesu arautua, sekuentziatua, talde horietara egokitutako metodologia zehatzak baliatzen dituena. Pobreziaren, berdintasunik ezaren eta problematika globalaren arazoak aztertzen eta sakontzen ditu. Epe ertain eta luzeko eginkizuna da. Ezagutzak balioei eta jarrerari lotuta doaz. Kontzientziazio- eta ulermen-prozesu bat da, ekintzetara bideratua.

Orain artekoan bi eremu horietako jarduerak egin izan direnez, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloaz dihardu planak.

2.2 Lankidetzarako nazioarteko marko berria: garapen jasangarriko helburuak

Estatuak garapenerako lankidetzaren arloan sinatuak dituen akordioak oro aplikatu ahal bazaizkie ere erakunde publikoei, bakar bati egingo diogu erreferentzia hemen, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 2015eko abuztuaren 12an onetsitako Garapen Jasangarriko 2030 Agendari, bertan zehazten baitira garapen jasangarriko helburuak (GJH).

Garapen jasangarriko helburuak (GJHak)	
1	Pobrezia desagerraraztea, bere forma guztietan, mundu osoan
2	Goseteak desagerraraztea, elikadura-segurtasuna eta nutrizioaren hobekuntza lortzea eta nekazaritza jasangarria bultzatzea
3	Bizi osasuntsua bermatzea eta denon ongizatea bultzatzea, adin guztietan
4	Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatekoa bermatzea, eta bizi osoan ikasteko aukerak sustatzea, denontzat
5	Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakumeak eta neskek oro ahalduntzea
6	Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria bermatzea, baita denontzako saneamendua ere
7	Energia eskuragarria, ziuerra, jasangarria eta modernoa denek bereganatu ahalko dutela bermatzea
8	Hazkunde ekonomiko etengabea, inklusiboa eta iraunkorra, erabateko enplegu produktiboa eta lan itxurazkoa sustatzea
9	Azpiegitura erresilenteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea
10	Herrialdeetako eta herrialdeen arteko berdintasun eza murriztea
11	Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, ziuerrak, erresilenteak eta jasangarriak izan daitezela lortzea
12	Kontsumo- eta ekoizpen-modu iraunkorrak bermatzea
13	Klima-aldaketari eta horren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea
14	Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian zaindu eta erabiltzea, garapen jasangarriko
15	Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria zaindu, ezarri eta sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, desertifikazioaren kontra borrokatzea, lurren degradazioa geldiarazi eta inbertitzea, eta aniztasun biologikoaren galera gutxitzea
16	Garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, justiziara jotzeko aukerak guztioi ematea eta erakunde efikazak, arduratsuak eta inklusiboak sortzea, maila guztietan
17	Garapen Jasangarriko Mundu Aliantza gauzatzeko eta bizkortzeko bitartekoak indartzea

Garapen jasangarriko helburuen alde onen artetik nabarmendu da garapenaren problematikaren ikuspegi integralagoa ematen dutela, non pobrezia kontrako borroka ezin den modu isolatuan planteatu, kontuan hartu gabe kausak eta testuingurua, eta herrialde aberatsak nahiz pobreak konprometitzen dituen agenda unibertsal gisa aurkeztu direla, aintzat harturik arazoak komunak eta globalak direla. Nolanahi ere, orobat kritikatu da ez dela zalantzan jartzen aurre egin nahi zaien arazoetako asko sortzen edo areagotzen dituen garapen-eredu *predatzaile* eta baztertzalea, eta, ikusirik aurrekarien —Milurteko Garapen Helburuen— emaitza kaskarrak, ez da harrizkoa zalantza arrazoizkoak edukitzea, zein izango ote den horien eraginkortasuna.

2.3 Lege- eta arau-markoa

Garapenerako lankidetzari aplikagarri zaion legeria hauetan oinarritzen da:

- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko 1998ko uztailaren 7ko 23/1998 Legea (Estatukoa),
- Garapenerako Lankidetzari buruzko 2007ko otsailaren 22ko 1/2007 Legea (EAEkoa).


Hala eta guztiz ere, udalek lankidetzako agente moduan duten eginkizunaren aitortpenetik eta bi legeetako printzipio eta helburuen mendekotasunetik haratago, ez Espainiako legeak, ez Euskadikoak ez ditu udalen eskumenak edo jarduera-irizpide edo -ildoak mugatzen garapenerako lankidetzaren alorrean.

Hauetara lege horiek betetze aldera landu diren eta gaur egun oraindik indarrean dauden planak:

- Espainiako Lankidetzaren IV. Gida-planak (2013-2016) ez ditu udalak aipatzen, eta behin bakarrik egiten dio erreferentzia Lurraldean Arteko Lankidetzaren Batzordeari, baieztatzen duelarik duen eginkizuna sustatu beharra dagoela kontu-ematearen alorrean.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2014-2017 aldirako Garapenerako Lankidetzaren III. Gida-planak diagnostiko bat du abiapuntu, non onartzen den ez dagoela koordinazio handirik udalekin, eta laugarren ildo estrategiko bat planteatzen da, "lankidetzaren politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetuagoa izatea" helburu. Orobat esaten du honako hau: "Hala-ber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta gainerako euskal erakunde publikoen ekintzen arteko harmonizazio eta osagarritasun handiagoa sustatuko da Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen barruan". Nolanahi ere, aurrerapen horiek guztiak gorabehera, koordinazio hori ez da gauzatu.

2.4 Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren ibilbidea

1988an, aurrekontuaren % 0,7³ garapenerako lankidetzara bideratzea erabaki zuen Gasteizko udalbatzak. Udal lankidetzaren abiapuntua izan zen erabaki hura, Gasteizen ez ezik, baita Espainia osoan ere. 1995ean, % 1era igo zuen udalbatzak lankidetzara bideratzen zen portzentajea. Nolanahi ere, 2005etik aurrera portzentaje hori urritzen joan zen, eta 2011-2015 aldian gorabehera handiak izan zituen:



27 urtez, egiatan Espainiako udalen lankidetzarekin bat egin izan duen garapenerako lankidetzaren diseinatu eta gauzatzen joan gara, baina honela labur litezkeen zenbait ezaugarri espezifikorik eutsirik:

- Elkartasuna eta giza eskubideak izan dira beti Udalaren lankidetzaren bultzatzaile izan duten printzipioak.
- Eman den laguntza, funtsean, ekonomikoa izan da; izan ere, 46 milioi euro inguru eman dira Garapenerako Laguntza Ofizialerako, 1988tik 2015era bitartean.

3 Udal aurrekontuko diru-sarreraren 1-5 kapituluaren baturaren gainean kalkulaturik, hau da, ohiko diru-sarrera guztien gainean.

- Nagusiki, Garapenerako GKEen bitartez bideratu da lankidetzaren diru-laguntzak eman dira horien ekintzetarako, deialdi publikoen baitan, eta deialdi horiek berak gero eta gehiago bereizten eta espezializatzen joan dira.
- Nazioarteko lankidetzaren arloan, GGKE bakar batekin izan da hitzarmen iraunkorra; hain zuzen ere, SEADen Lagunen Elkartearekin, 1995az geroztik baitago indarrean elkarte horrekiko hitzarmen orokorra.
- Beste udal batzuekin batera jarduteko eta udal izaerako lankidetzaren sakontzeko borondateak Euskal Fondoan —Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes— parte hartzeraren eraman zuen Udala, erakunde hori sortu zenetik bertatik, hots, 1996tik.
- Hegoaldeko erakundeekin izandako zuzeneko zenbait lankidetzaren esperientzian gauzatu izan da benetako lankidetzaren agentearen izateko borondatea.
- Lankidetzaren teknikoaren alorreko hainbat esperientzia egin dira proiektu eta programetan, udal zerbitzu espezializatuetatik⁴: modu jarraituagoan, Gasteizko Udal Urak SATik (AMVISA) eta Berdintasun Zerbitzuetatik, baina baita Gizarte Politiken Saileko hainbat zerbitzuetatik eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegitik ere.
- Garapenerako lankidetzaren kalitatea hobetzera bideratutako hainbat praktika ere egin dira, hala nola bukatutako proiektuen inaktuaren ebaluazioak (1995az geroztik) eta hainbat urterako proiektuak —lankidetzaren proiektuak nahiz garapenerako hezkuntzaren alorrekoak— identifikatzeko laguntza, berariazko deialdi baten baitan.
- 2002. urtean gizarte etxe eta kirol instalazioetako kafe-makinetan bidezko merkataritzako kafea sartu zelarik, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeari ekin zion Udalak, hiriko GGKE espezializatuen laguntzarekin, eta, aldi berean, erosketaren publikoan bidezko merkataritza txertatuz. Berariaz dago hala jasota 2015eko uztailan onetsi zen Kontratazio Gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidean.
- Gertueneko erakundeekin lankidetzaren jarduteko borondatea, bereziki Arabako Foru Aldundiarekin, zeinekin urtero egin baitira lankidetzaren hitzarmenak 2001az geroztik.
- Larrialdietarako Arabako Funtse: larrialdiko laguntzarako berariazko mekanismoa, Arabako Foru Aldundiarekin batera sortua, zeinek 2005az geroztik funtzionatzen baitu.

Garapenerako Lankidetzaren 2010-2014ko Gida-planaren ebaluazioak positibotzat nabarmentzen ditu alderdi horiek. Nolanahi ere, ahuleziatzen jotzen ditu, ebaluatutako aldiari gagozkiolarik, bai aurrekontu-jarraitutasunik eza, bai lankidetzaren eta garapenerako

4 Bereziki, zuzeneko lankidetzaren baitan, eta Euskal Fondoaren bitartez.

hezkuntzaren kalitatean gehien laguntzen duten tresna eta mekanismoen parte bati — hainbat urterako proiektuei, eta proiektuak identifikatu eta ebaluatzeari— nahitaez uko egin behar izana. Era berean, garapenerako hezkuntzaren ikuspegi estrategikoago baten beharra azpimarratzen da, eta egindako ekintzen eta lortutako emaitzen balioa agerian jarriko duen komunikazio-plan batena.

2.5 Udal lankidetzaren agenteak eta horien gaitasunak

Aurreko gida-plana indarrean izan den bitartean Gasteizko Udalak garapenerako emandako laguntza ofizialaren % 85 hogeita hamar bat GGKEren bitartez bideratu da, aski modu egonkorrean.

Beraz, GGKEak dira udal lankidetzaren agente nagusiak. Hala ere, ezin ahaztu askotariko kolektibo heterogeneoa dela hori, bai organizazioen izaerari eta loturei, dimentsio eta gaitasunei, lankidetzako ikuspegiei, esku-hartze eremu geografikoei, lankidetzako sektoreei eta sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren arloan duten gaitasunari dagokionez, bai beren oinarri sozialari, egiturari eta hirian boluntarioak mobilizatzeko gaitasunari dagokionez.

Beste kolektibo sozial batzuek ere bultzatu izan dituzte lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren alorreko ekimenak, bereziki etorkinen elkarte eta kolektiboek.

Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan burutzen diren ekintzetako askok, gainera, hezkuntzako erakunde eta profesionalen laguntza jaso ohi dute, baita hainbat esparrutako elkarte edo entitateen laguntza ere.

Euskal Fondoa dugu Gasteizko Udalaren lankidetzan modu jarraituan esku hartu izan duen beste agenteetako bat, batetik lankidetzan diharduten toki-erakundearen sarea den aldetik, eta, bestetik, bost herrialdeetako garapenean laguntzeko proiektuak —gehienetan bertako udal erakundeekin batera— kudeatzen jardun duen aldetik.

Era berean, gorago esanenez, lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren agente aktiboaren egitekoa bere gain hartu nahi izan du Udalak, hainbat udal zerbitzu inplikaturik.

Agente lokal horiek zerrendatzen ditugularik, ez dugu ahaztu behar ezen, kasu gehienetan, Hegoaldeko organizazioak —hango proiektukideak— direla gauzatzen diren lankidetzako ekintzen pisurik handiena beren gain hartzen dutenak, eta, horrenbestez, gure lankidetzaren eragile nagusiak.

Egoera horren ondorio dira gida-plan honen funtsezko bi ezaugarri:

- Neurri handi batean Udaletik kanpoko agenteek garatu beharreko plana da.
- Planaren emaitza errealak ez dira egongo, bakarrik, udal ekintza eta gaitasunen mende, baizik eta baita kanpo-agente horien borondatearen eta gaitasunen mende ere, eta, bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetako proiektukideen mende.

2.6 Udalen lankidetzaren espezifikotasuna


Garapenerako lankidetzaren arloan, laguntza-emaile —neurri handi batean GGKEen bitartez bideratzen diren laguntzen emaile— izatea baino zer edo zer gehiago dagokie udalei. “Agintari lokalak: garapenaren aldeko agenteak” izenburuko komunikazioan —2008ko urriaren 8koa—, lankidetzako lokalaren balioa azpimarratzen du Europako Batzordeak, bi alderdi nagusi nabarmenduz:

- Aparteko balio erantsia dakarkiete agintari lokalek garapen-prozesuei. Garapen-bidean dauden herrialdeetan bideratzen dituzten ekintza zehatzez gain, agintari lokalek funtsezko papera jokatzen dute eragileak mobilizatu eta elkarrekin lan egiten jartzeko orduan —komunak zaizkien garapen-helburuak gauzatzera bideratutako partaidetza-prozesua baitakar horrek berekin—, eta garapenaren aldeko komunikatzaile sutsuak izan ohi dira, iritzi publikoa sentsibilizatzen baitute, eta beste eragile batzuk ere kausa horretara biltzen. (...)
- Agintari lokalek esperientzia zuzena dute lurralde-garapenean, deszentralizazioan eta gobernantza demokratikoa sendotzeko lanetan, eta eskumen zabalak dituzte horretarako. Garapenerako laguntzaren kontzeptuak, eta horretarako egin diren ekarpenek, bilakaera bat izan dute, eta gobernantza ona eta demokratizazioa dira gakoak gaur egun; eta agintari lokalek funtsezko papera jokatzen dute horretan.

Ilido beretik, Gasteizko Udalak, orain arteko ibilbidea aintzat harturik, berretsi egiten du garapenerako lankidetzako agente izaten jarraitzeko nahia, baita udal lankidetzaren espezifikotasuna ere:

- garapen lokalean zentratua eta, bereziki, erakunde gisa esperientzia duen eta gaitasuna erakutsi duen sektoreetan,
- udal langileen parte baten nahiz udalerriko beste pertsona, kolektibo eta entitate batzuen inplikazioarekin,
- udalerrien neurri taxutua, esan nahi baita garapen-bidean dauden herrialdeetako erakunde publiko lokalekin solastatu eta hartu-emanetan jardutera bideratua, eta erakunde horiek sendotzera eta politika publiko lokalak garatzera,
- udalerriko kolektibo eta entitateek eta garapen-bidean dauden herrialdeetakoek bat egitea ahalbidetuko duena,
- beste lankidetzako erakunde batzuekin eta garapen-bidean dauden herrialdeetako erakundeekin —programa edo gai komunengatik— sareak eratuz lan egiteko aukera emango duena.

3. BIGARREN ZATIA: MARKO ESTRATEGIKOA



3.1 Egitekoa

Hitz hauekin eguneratzen du bere egitekoa Gasteizko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren Gida-plan honek:

“Pertsonen, kolektiboen eta sozietateen garapen-prozesu lokaletan laguntzea, horien eskubide guztien erabateko erabilera lortzeko, beste eragile lokal nahiz nazioarteko batzuekin elkarlanean; gure hirian elkartasunaren kultura sustatzea, eta hiriko organizazioak —beren neurri apalean nazioarteko ordenaren eraldaketan laguntzeko— beste herrialde batzuetakoekin inplikaturako direneko esperientzia eta estrategia berritzaileak ahalbidetzea”.

3.2 Ikuspegia

Giza garapen lokaleko prozesuetan eta giza eskubideen errespetuan laguntzen du Gasteizko Udalak gauzatzen edo bultzatzen duen garapenerako lankidetzak; Gasteizko kolektibo eta pertsonen benetako inplikazioa bereganatzen du; hiriko organizazioak modu aktiboan inplikatzeko diren nazioarteko baterako ekintza-esperientziak errazten ditu; gutxieneko kalitate- eta efikazia-baldintzak biltzen ditu, eta hirian elkartasunaren kultura sortzen laguntzen du.

3.3 Helburuak

- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren bitartez hirian elkartasunaren kultura sustatzen laguntzea.
- Hiriko pertsonak, kolektiboak eta erakundeak —Udala bera barne— benetan murgilduko diren programa eta ekintzak burutzea, garapenaren eta elkartasunaren alorrean.
- Giza garapen lokalerako prozesuetan laguntzea, honelakoak dakartzatelarik berekin:
- Herritarren bizi-baldintzak hobetzea eta, bereziki, oinarrizko behar sozialei erantzutea.
- Erakundeen, gizakien eta gizartearen ahalmenak sendotzea.
- Nazioarteko baterako ekintza-esperientziak erraztea, gizartea eraldatzeko helburu zehatzekin.

3.4 Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia

Gasteizko Udalaren lankidetzaren funtsezko ikuspegi gisa jasotzen da “giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia” deitu ohi zaiona, zeinen funtsezko ezaugarriak Nazio Batuen organismoek adostuak baitituzte:

Eskubideen ikuspegia: NBERen ulerkuntza kolektiboa

- Garapenerako lankidetzaren zerbitzura dauden programa, politika eta laguntza teknikoek oro giza eskubideak gauzatzera bideratuta egon behar dute, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta giza eskubideen inguruko nazioarteko beste tresna batzuetan ezarritakoaren ildotik.*
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotzen diren giza eskubideen estandarrek eta printzipioek —eta giza eskubideen inguruko nazioarteko beste tresna batzuen ondorio diren printzipioek— gidatzen dute garapenerako lankidetzaren eta programazio guztia, sektore guztietan eta programazio-prozesuaren fase guztietan.*
- Garapenerako lankidetzak honetan lagundu behar du: «betebeharren titularrek» beren eginbeharrak betetzeko dituzten gaitasunak hobetzen eta, orobat, «eskubideen titularrek» horiek galdatzeko dituzten gaitasunak hobetzen.*

Ulerkuntza horren lehen korolariora haxe da: “Aitortzen da funtsezko aktoreak direla pertsonak beren garapenean, ezen ez ondasun eta zerbitzuen hartzaile pasiboak.” Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak “programazio-jardunbide on” sorta bat dakar berekin.⁵

3.5 Gidalerroak

Zeharkako lerroen, lerro estrategikoen eta besteren arteko ohiko bereizketak albo batera utzita, honako hauek jo dira Garapenerako Lankidetzaren 2016-2019ko Gida-planaren gidalerrotzat:

1. Elkartasuna —topaketa gisa— eta herritartasun globala sustatzea.
2. Lankidetzaren giza garapen lokaleko prozesu iraunkorretan zentratzea.
3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, hala lankidetzaren nola sentibilizazioan eta garapenerako hezkuntzan.
4. Bizikidetzarako lankidetzaren esan nahi baita, alde batetik, lankidetzaren ekintzak bultzatzea, eta, bestetik, hirian bizikidetzaren hobetzea lagunduko duten hezkuntza-programetan esku-hartzea.
5. Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatu eta hedatzea, bai Udalaren erosketen politikaren baitan, bai hirian.
6. Eraldaketarako nazioarteko baterako ekintzaren alorreko esperientzia eta estrategietan laguntzea, hiriko organizazioen inplikazio sendoa dakartzatelarik berekin.
7. Udalak lankidetzaren programetan nahiz sentibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren alorrean duen inplikazioa areagotzea.

⁵ Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikus: “*Guía metodológica para la incorporación de los derechos humanos en la cooperación al desarrollo*”, A. Chacón, J. Oskoz eta B. García, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2009 —2012an berrikusia eta eguneratua—.

8. Lankidetzaren nahiz sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren kalitatea eta efikazia hobetzea.

9. Lankidetzan diharduten gainerako erakunde publikoekin koordinatzea, hurbileneko arlotik hasita.

3.5.1 1. gidalerroa: Elkartasuna —topaketa gisa— eta herritartasun globala sustatzea

Elkartasunaren sustapena, berriro ere, gida-planaren gidalerrotzat hartzearekin, helburuaren bitasuna nabarmendu nahi da:

- Alde batetik, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko helburu nagusia da.
- Bestetik, lankidetzako ekintzek eta bidera litezkeen estrategia berritzaileek ere helburu horretan laguntzea lortu nahi da.

3.5.2 2. gidalerroa: Lankidetzaren giza garapen lokaleko prozesu iraunkorretan zentratzea

Horrek esan nahi du honelako lankidetzaren ekintzak lehenesten direla:

- epe ertainekoak (3 edo 4 urte),
- lurralde-eremu mugatueta,
- pertsonen bizi-baldintzen hobekuntzan zentratutako garapena bilatzen dutenak; giza eskubideak errespetatzen, pertsonen gaitasunak garatzen eta erabiltzaileei aukera gehiago ematen zaizkien ingurune soziala sortzea xede dutenak.

Uste izan da ezen, Udalaren lurralde-izaerara eta izandako kudeaketa-esperientziara hobeto egokitzeaz gain, bi alderdi horien konbinazioak eragin handiagoa izateko aukera ematen duela⁶, eta erraztu egiten duela destinoko lekuetako kolektiboen eta Gasteizen arteko harremanak eta trukeak.

3.5.3 3. gidalerroa: Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena, bai lankidetzan, bai garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan

Gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak lankidetzarako lehentasuntzat hartzen du espezifikoki gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.

⁶ Proiektu bakoitzeko urteko diru-laguntzaren zenbatekoa aintzat harturik, ez baita 100.000 eurotik gorakoa izaten.

Beijingo Ekintza Plataformak (1995) planteatutako bide bikoitza izan zuten abiapuntu gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren helburuak lortzeko estrategiek:

- alde batetik, emakumeen ahalduentzearen sustapena,
- bestetik, *mainstreaming* edo generoaren transbertsalizazioa politika guztietan.

Gida-plana, horrenbestez, hiru premisa arruntetatik abiatzen da:

- genero-berdintasuna garapenerako ezinbesteko baldintza da,
- garapenerako lankidetzaren jarduerak eta sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arlokoak ez dira neutralak, generoari dagokionez,
- emakumeak ahalduentzeko ekintza espezifikoak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten ekintzak elkartuz lortzen dira gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko helburuak, eta genero-ikuspegia lankidetzaren jardueraren orokorretan txertatuz.

Gasteizko Udalak lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan aurrera eraman dezakeen estrategia definitzeko orduan, ezin dira albo batera utzi honako alderdi hauek:

- Era askotako eragileen ekimen eta proiektu espezifikoetarako laguntza ematean datza, funtsean, bideratzen den lankidetzaren.
- Garapen-ekintzetan berdintasun-neurri espezifikoak edo genero-ikuspegia txertatzea egintza politikoa da, lankidetzaren egungo eragile guztiek nahitaez partekatzen ez duten ikuspegi zehatza eskatzen duena eta, onespen erretorikotik haratago, hainbat erresistentziarekin topo egiten duena.
- Ahalduentzearen edo berdintasunaren arloko neurri espezifikoak inplementatzea edo garapenerako proiektu eta programetan genero-ikuspegia benetan txertatzea ez dago horrenbestean horiek finantzatzen dituzten edo lankidetzaren diharduten erakundeen esku, ezpada programa horien arduradun lokalen esku, eta gaitasun mugatua du Udalak horien ikuspegietan eragiteko.
- Aurkezten diren proiektuen dokumentazioan generoaren inguruko kontsiderazioak —eta baita helburuak ere— idatziz jartzeak ez du besterik gabe bermatzen haien baitan genero-ikuspegia benetan txertatuko denik.

Lankidetzaren arloko jardueretan —eta sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arlokoetan— genero-ikuspegia txertatzeko beharrezko diren betebeharrak buruzko kontsiderazio horiek aintzat harturik, estrategia banakatua aukeratu da gida-plan honetan: Lehenik eta behin, proiektu eta esku-hartze guztietarako gutxieneko betebeharrak ezartzen dira. Bigarrenik, izaera jarraituko ekintzetan aurrerakuntza progresiboak egitea galdatzen da. Azkenik, emakumeen ahalduentzearen eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko helburuei erantzuten dieten ekintzak lehenesten dira.

Hauek dira lankidetzaren ekintza guztiei —baita sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko ere— aplikatuko zaizkien gutxieneko betebeharrak:

- Ekintza ezingo da oinarritu gizon eta emakumeen arteko tratu-desberdintasunean —edo halakorik sortu—, ezta emakumeen zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik eragin ere.
- Ekintzek ezingo dute desberdintasun handiagorik sortu, garatzen diren esparruan. Horretarako, ekintzak berdintasun-helburuan duen eragina aztertu beharko da, eta, baldin eta identifikazioan eragin negatiborik antzematen bada, horri aurre egiteko neurriak aurreikusi beharko dira.
- Desberdintasuna murriztera edo gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako zenbait neurri jaso beharko ditu proiektuak. Horien artean, gutxienez ere, proiektuan emakumeen partaidetza bultzatzea galdatu beharko da, baita sortzen diren lanpostu eta baliabideetara sarbidea edukitzea ere.

Izaera jarraituko ekintzen kasuan, aurrerakuntza progresiboak galdatuko dira genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, ekintzarekin jarraitzeko baldintza gisa.

Bestalde, bi eratako proiektu eta programak lehenetsiko dira, eta bultzatuko, balorazio-sistemetan:

- gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako edo emakumeak ahalduzko berriarazko ekintzak, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko ikuspegi eta politika esplizituei erantzuten dietenak,
- gizon eta emakumeen arteko berdintasuna zuzeneko helburutzat ez eduki arren, genero-ikuspegia modu egokian bere egin eta, modu eraginkorrean, berdintasunaren helburua lortzeko bidean hobekuntzak dakartzatenak.

Horrez gain, Udalak garapenerako lankidetzaren alorrean sustatzen duen politikaren baitan berdintasun-printzipioa hobeto eta modu eraginkorrangoan lantzen lagunduko duten ekintza edo neurriak aurreikusi beharko dira.

Planak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna azpimarratzen duelarik ere, ez da ahaztu behar genero-diskriminazioaz gain badirela bestelako diskriminazio-faktore ugari ere, hala nola azalaren kolorea, klase soziala, kasta, sexu-orientazioa, adina, erlijioa, hizkuntza eta abar, zein aldatu egiten baitira testuinguruaren arabera. Zentzu horretan, garapenerako lankidetzaren baitan funtsezko interesa du interseksionaltasun-konzeptuak, zein honela definitzen baita: “tresna analitiko bat, generoa beste identitate batzuekin nola gurutzatzen den aztertzeko eta ulertzeko, eta horren aurrean erantzuteko; eta orobat ulertzeko gurutzatze horiek nola laguntzen duten opresio- edo pribilegio-esperientzia banakoak sortzen⁷.”

⁷ *Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica*, Derechos de las mujeres y cambio económico, nº 9, agosto 2004, AWID, Toronto.

3.5.4 4. gidalerroa: Bizikidetzarako lankidetzaren

Garapenerako Lankidetzaren Gida-planaren ondorioetarako, hirian bizi diren jatorri ezberdineko pertsonekin zerikusia duen bizikidetzaren zentratu gaitzeko, eta, bereziki, Hegoaldeko herrialdeetatik etorritakoei eragiten dien neurrian. Dimentsio hori aintzat hartzea aurrekari hauei zor zaie:

- Areagotu egin da Gasteizen dibertsitatea, hirian bizi diren pertsonen jatorri geografikoari dagokionez. Hirian erroldatutako pertsonen % 11,5 atzerrian jaiotako dira, eta % 9,1ek atzerriko nazionalitatea dute⁸. Hirian 1000 lagunetik gorako komunitateak dituzten Hegoaldeko herrialdeak bost dira: Maroko, Algeria, Kolonbia, Pakistan eta Nigeria. Beste hamabi herrialdeetako komunitateak berrehun lagunetik gorakoak dira.
- 2014ko Gasteizko migrazioari buruzko azterlan diagnostikoan honela jasotzen da: *“Anbibalentzia argia ageri da gasteiztarren iritzi, pertzepzio eta jarreretan; izan ere, zenbait kontutan jokabide tolerantetarako, irekiak eta konfiantzazkoak erakusten ditu, baina beste batzuetan, aldiz, itxikeria, konfiantzarik eza eta ezinikusia adierazten ditu, etorkinen aurrean”*. Eta beste hau gehitzen da: *“batez ere krisia hasi zenetik, atzeritarren immigrazioaren ondorioei buruzko diskurtsoak gogortu egin dira, etorkin atzeritarren kontrako estereotipo faltsu eta negatiboak sendotuz”*. Gasteizen bizikidetzaren hobetzeko bi ekintza-ildo potentzial adierazten dira azterlan horretan: 1) Aurreiritziz jositako diskurtsoei aurre egin, eta 2) Interakzioa hobetu eta sustatu.
- Batez ere Hegoaldeko herrialdeetako pertsonak biltzen dituzten hamar elkartek parte hartu dute beren herrialde edo jaiotzeko bide bideratutako lankidetzaren ekimenetan. Hala izan da, nagusiki, Kolonbiaren kasuan, eta neurri txikiagoan, Ekuador, Mali eta Ginearen kasuan.
- Udaleko arlo sozialeko profesionalen eta herrialde horietako arteko hainbat truke-esperientziak agerian utzi dute bi aldeentzat gertatzen direla interesgarri horrelako trukeak, eta baliagarri dela udal profesionalentzat hiriko zenbait atzeritar-kolektibori eragiten dieten gako soziokulturaletan sakontzea.

Garapenerako lankidetzaren arloan, “baterako garapena” kontzeptua baliatu izan da etorkin-kolektiboengandik sortutako lankidetzaren ekimenez hitz egiteko orduan. Nolanahi ere, nahiago izan dugu izendapen hori ez baliatu; alde batetik, “baterako garapena” kontzeptu zabalagoa delako, migratzaileen bidalketen eta beren jatorrizko herrialdeetan egiten dituzten inbertsio ekonomikoaren erabilera ere bere baitan hartzen duena, eta, bestetik, migrazio-fluxuen erregulazioarekin lotu ohi delako.

⁸ Gasteizko Udala: *“Azterketa eta estatistikak - 2014ko estatistika-urtekaria”*, 2014/12/31ko datuak.

Bizikidetzarako lankidetzaz dihardugarik, berezi alderdi hauek ditugu gogoan:

- Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren bitartez, immigrazioaren gaine-ko aurreiritziz betetako diskurtsoei aurre egitea, bereziki jatorrizko herrialdeei eta migrazio-mugimenduei nahiz horien arrazoiei buruzko informazioa emanez.
- Lankidetz-ekimenak dituzten migratzaile-elkarte eta -kolektiboei Udalaren garapenerako lankidetzarako deialdi edo mekanismoetara sarbidea ematea, herritartasuna baliatzeko beste modu bat izaki.
- Kolektibo eta pertsona horien eta hiriko GGKEen arteko interakzioa sustatzea.
- Jatorrizko herrialdeetako arlo sozialetako profesionalekin trukeak ahalbidetzea, migratzaileekin harreman gehien dituzten udal zerbitzuentzat baliagarri izango direnak.

Lankidetz horren alderdi interesgarriak dira, era berean, migratzaileek beren jatorrizko leku eta gizartearen gainean duten ezagutza paregabea, eta horiekin dituzten harremanen kalitatea.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak izan ditu dagoeneko hainbat esperientzia eremu horretan, eta guztiz argi dauka zein konplexua eta zaila den lan-ildo hori. Horregatik, Bizikidetz eta Aniztasun Zerbitzuaren laguntza izango du; kolektibo horiei prestakuntza eta laguntza emateko ekintzak aurreikusten dira, eta tresna errazak baliatuko dira, lankidetz-ekintzen kudeaketan espezializatuta ez egon arren beren jatorrizko herrialdeen garapenean laguntzeko interes handia duten elkarteak ez daitezten geratu udal lankidetzatik baztertuta.

3.5.5 5. gidalerroa: Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatu eta hedatzea, bai Udalaren eresketa-politikaren baitan, bai hirian

Urte asko daramatza Gasteizko Udalak bidezko merkataritzari eta kontsumo arduratsuari laguntza ematen.

Gizarte etxe eta kirol instalazioetako edari beroen makineta nahitaez bidezko merkataritzako kafea sarraraztea izan zen lehenengoetako pausua, 2002. urtean. 2008an, bidezko merkataritzaren aldeko erakunde-adierazpena onetsi zuen udalbatzak. 2009an, hitzarmena sinatu zuen Udalak hirian bidezko merkataritzaren arloan diharduten GGKEekin, informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak bideratzeko, elkarrekin. 2015ean, Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidea onetsi zuen, non berariaz sartuta baitago bidezko merkataritza.

Ibilbide horretan guztian, bi norabidetan egin da aurrera, eta horietan sakondu nahi da orain:

- bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen zabalkundea, bai herritarren artean, oro har, bai udal langileen artean eta jarduera-sektore jakinetan,
- bidezko merkataritzako produktuak sartzea udal erosketetan.

3.5.6 6. gidalerroa: Gizartea eraldatzeko nazioarteko baterako ekintzaren alorreko esperientzia eta estrategietan laguntzea, hiriko organizazioen inplikazio sendoa dakartelarik berekin

Garapenerako lankidetzako aktoreen artean gaur egun puri-purian dagoen debate bat, plana landu bitartean erabat agerian geratu dena, honako hau gainditzearen premiaren ingurukoa dugu:

- Iparra-Hegoa ikuspuntua, gizarteek zenbait desafio eta erronka global partekatzen dituzten sistema global bat sortu den neurrian,
- garapenerako lankidetzaren —beste herrialde batzuetan— eta garapenerako hezkuntzaren —gure lurraldean— arteko dikotomia,
- proiektuaren markoa, toki-erakundeek laguntzen duten lankidetz-tresna eskusibogisa.

Planteatzen den alternatiba hau da: gizartea eraldatzeko aliantzetan oinarritutako ikuspegi baterantz jotzea, hau da, lankidetz-organizazio tradizionalen, gure inguruko organizazio sozialen eta munduko beste leku batzuetako organizazioen arteko estrategia partekatuetara.

Bestalde, organizazio lokalak murgilduta dauden eta lankidetz-metodologietara berrikuntzak dakartzaten beste lankidetz-ekimen eta -dinamika batzuk sortzen dira, zein nekez sartzen baitira proiektu tradizionalen marko izatez estuen baitan.

Debateek argi utzi dute hori ez dela gaur egun lankidetz-agenteen baterako orientazioa, ezta gailena ere. Nolanahi ere, bidezko merkataritzaren edo laneko eskubideen arloan diharduten organizazioen esperientziak, esaterako, argi uzten dute nazioarteko ekintza-bide eraginkorra dela.

3.5.7 7. gidalerroa: Udalak lankidetz-programetan nahiz sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren alorrean duen inplikazioa areagotzea

Lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko hainbat proiektu edo programetan zenbait udal zerbitzuek eta AMVISA udal enpresak eskainitako lankidetz dagoeneko aski finkatua izan zen aurreko gida-planaren ebaluazioan bereziki balioetsi zen alderdietako bat.

Hainbat arrazoi direla medio —hala nola, erakundearen konpromisoa, lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko ekintzen kalitatea eta efikazia, giza aberastea eta elkartasuna udal langileen artean—, honako hau bultzatu nahi da:

- erakundea erabat inplikatzeko, Hegoaldeko herrialde bateko toki-erakunderen batekiko lankidetz-hitzarmen baten baitan, edo garapenerako programa deszentralizatu baten baitan,

- espezializatutako udal zerbitzuen laguntza teknikoa, maila desberdinetan, garapenerako lankidetzaren ekimenetan,
- sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren zeharkakotasuna, beste udal sail batzuen hezkuntza-programetan,
- kontsumo etikoaren eta finantza etikoen inguruko praktikak txertatzea Udalaren kontratazio-politiketan.

Beraz, udal lankidetzaren programa eta tresna guztiei eragiten dien gidalerrotzat jotzen da, nahiz eta ez duen zertan ekintza guzti-guztietan gauzatu.

3.5.8 8. gidalerroa: Lankidetzaren eta sentsibilizazioaren kalitatearen eta efikaziaren hobekuntza

Kalitatea eta efikazia hobetzea xede duen gidalerro hau programa eta tresna guztietan hartu behar da aintzat.

Kalitatea eta efikazia hobetzeko ekintza espezifikoen artean hauek aurreikusten dira, bereziki:

- Proiektu edo programen identifikaziorako baliabideak, eta esku-hartze estrategien definizioa.
- Ematen diren diru-laguntzen kudeaketa erraztea, lankidetzaren ekintzetarako egokien diren tresna administratiboak erabiliz.
- Esku-hartzen duten eragileei ikasteko balioko dieten ebaluazioak egitea, eta konklusioak sozializatzea.
- Prestakuntza-ekintzak, eta jardunbide egokiak partekatzea zuzenduak, aktore desberdinen partaidetzarekin.

3.5.9 9. gidalerroa: Lankidetzaren diharduten gainerako erakunde publikoekin koordinatzea, hurbileneko arlotik hasita

Etengabea izan da erakunde publikoen lankidetzaren politikaren arteko koordinazio eskasari egin izan zaion kritika, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak Espainian egindako pareen azterketetan (2011n izan zen azkena).

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, bi gertakari positibo nabarmen daitezke:

- laurogeita hemeretzi bat udalen eta bi aldundiren partaidetza, Euskal Fondoan,
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Garapenerako Lankidetzaren III. Gida-planean (2014-2017) adierazitako borondatea —“eragile guztiek adostutako ikuspegia sortzea” euskal lankidetzaren—, zeinek berekin ekarri baitu, orain artekoan, erakunde desberdinek parte hartzea estrategia sektorialen definizioan.

Arabako Lurralde Historikoaren esparruan, eutsi egin zaio 2000. urteaz geroztik Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak dituzten koordinazio-harremanei, urtero trukutzen baita informazioa bi erakundeen artean, eta bereziki ikusi da gauzatu Larraldietarako Arabako Funtzaren funtzionamenduan —larraldiko esku-hartzeetarako laguntza ekonomikoa emateko mekanismoa da hori—.

Lankidetzaren hobetzea ekarriko duten euskal erakundearen ekimenetan laguntzeko konpromisoa hartzen du Gasteizko Udalak, eta lehentasunezkoztat jotzen ditu alderdi hauek:

- erakundearen arteko koordinazio-tresna eraginkor bat martxan jartzea —litekeena da Garapenerako Lankidetzaren buruzko 1/2007 Legeak sortu zuen erakundearen arteko batzordea berraztertzea eskatzea horrek—,
- garapenerako hezkuntzaren estrategiak berrikustea,
- prozedurak harmonizatzea; bereziki, GGKEei diru-laguntzak emateko egiten diren deialdiei dagokienez,
- informazio-sistemak harmonizatu eta homologatzea,
- larraldiko laguntzetako tresnetan esku hartzea, Larraldietarako Arabako Funtzaren esperientziatik abiatuta,
- baterako zenbait lankidetzaren programa martxan jartzea.

3.6 Politiken koherentzia

Ugari dira Gasteiz bezalako hiri bateko udal jardueraren baitako politikak eta arloak, garapen jasangarriko helburuekin zuzenean erlazionatu daitezkeenak. Izatez, Udalean errota dauden hainbat ekimen eta programa lot dakizkioke helburuetako bakoitzari⁹ —gizartegaien, ingurumenaren, ekonomiaren, hezkuntzaren nahiz besteren arlokorik—, nahiz eta ez duen esan nahi jarduera guztiak norabide horretan joan direnik. Nolanahi ere, onartu beharra dago horien eragin globala oso mugatua dela, eta ez direla asko Hegoaldearekiko harremanetan zuzenean eragiten duten udal politikak.

Arrazoi horiek direla eta, lehentasunezko hiru esparru adierazten dira planean, lankidetzaren politikarekiko koherentzia planteatzeko orduan, ez horrenbeste garapen-bidean dauden herrialdeetan dituzten zuzeneko inplikazioengatik, ezpada herritarren pertzepzioetan eta balioen transmisioan duten eraginagatik:

- Erosketa publikoa.
- Bizikidetzaren eta errespetua sustatzea, eta aniztasuna balioestea, bereziki jatorri eta nazionalitateei dagokien aldetik.
- Udal arlo desberdinen hezkuntza-programak.

⁹ 14. helburua salbu, jakina, ozeanoekin, itsasoekin eta itsasoko baliabideekin baitu zerikusia horrek.

3.7 Bi arlo tradizional eta esploratzeko bide berriak

Gasteizko Udaletik bideratzen den garapenerako lankidetzak elkarren osagarri diren bi arlo hartu izan ditu bere baitan:

- Hegoaldean jardun: garapenerako lankidetzako programak, giza eskubideak babestekoak, larrialdiko esku-hartzeak eta abar.
- Hirian jardun: informazioa, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza, gasteiztar orori zuzenduta, eta komunikazio egokia.

Hori dela eta, eutsi egiten zaio planean, argi eta garbi, “lankidetzaren” arloaren eta “sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren” arloaren arteko bereizketari. Bereizketa horrek ez du esan nahi lankidetzaren arloak elkartasuna sustatzen lagundu behar ez duenik, ezta bataren eta bestearen arteko interrelazioak aintzat hartu behar ez direnik ere. Planaren hirugarren eta laugarren zatietan zehazten da arlo horien marko operatiboa.

Horrez gain, planak bidea ireki nahi die —modu pilotuan— lankidetzaren eta elkartasun-estrategia eta modu berritzaileei, non “lekuan lekuko” lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arteko mugak lausotu egiten diren, eta aliantzen eraketa eta sareko lana bihurtzen diren elementu zentral. Bosgarren zatian azaltzen da, laburzki, bide berri horien nondik norakoa.

4. HIRUGARREN ZATIA: LANKIDETZAN JARDUTEA Lankidetzaren alorreko marko operatiboa

Burutu nahi den lankidetzaren motaren ezaugarritze arin batetik abiatuz, GGKEek eta beste herritar erakunde batzuek bideratzen duten lankidetzari dagozkion ezaugarri eta tresna zehatzak azaltzen dira, eta ondoren, berriz, izaera municipalistako lankidetzaren ezaugarriak eta tresnak.

4.1 Garapenerako lankidetzaren motak eta osagaiak

4.1.1 Lankidetzaren motak

Bideratuko diren lankidetzaren motei dagokienez, honako hauek mugatuko da Udalaren garapenerako nazioarteko lankidetzaren:

- Garapenerako lankidetzaren mota, giza garapen lokal iraunkorraren ikuspegitik.
- Giza eskubideen babesa.
- Ekintza humanitaria, saharar errefuxiatuen populaziora mugatua.
- Larrialdiko laguntza.

4.1.2 Lankidetzaren ekintzaren osagaiak

Nahi izatekoa da laguntza ematen zaien ekintzek lankidetzaren oinarriko hiru osagaiak edukitzea:

- Laguntza ekonomikoa.
- Lankidetzaren eta truke teknikoaren, hau da, aholkularitzaren, laguntzaren, prestakuntzaren eta alderdi teknikoaren alorreko esku-hartzea, ekintzen kalitatea eta efikazia areagotzea ekarriko dutenak.
- Informazio-, komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak, esku-hartzeekin eta horien testuinguruekin zerikusia dutenak.

4.2 Garapenerako lankidetzaren motak, GGKEen eta bestelako herritar-entitateen bidez: alderdi orokorrak

Aurreikusitako tresnak —finantza-ildoak, neurri handi batean— abiapuntutzat hartuz, GGKEen bitartez bideratzen den lankidetzaren hainbat ezaugarri orokor azaltzen dira.

4.2.1 GGKEei eta herritar-entitateei zuzendutako finantza-ildoak

Hauek dira aurreikusten diren konkurrentzia publikoko diru-laguntzen ildoak —deialdiak—:

- Giza garapen lokaleko lankidetzaren proiektu kateatuak identifikatzea.
- Giza garapen lokaleko lankidetzaren proiektu kateatuak, hiru edo lau urtekoak.
- Urteko proiektuak.
- Giza eskubideak babesteko bi urteko proiektuak.

Larrialdiko esku-hartzeetan laguntza ekonomikoa emateko tresna bat da Larrialdietarako Arabako Funtza, Arabako Foru Aldundiarekin batera sortua, eta erakunde laguntzaileentzat erreserbatua.

SEADen Lagunen Elkartearikiko hitzarmen orokorrari eutsi egiten zaio, saharar herriak bizi duen okupazio- eta erbestealdi-egoera bereziagatik, sahararren gatazka konpontzeko perspektiba ezagatik eta gasteiztarrek eta Udalak harekin aspalditik erakutsi izan duten elkartasunagatik.

Aurrerago deskribatzen dira tresna desberdinak.

4.2.2 Gasteizko GGKEak eta entitateak

Konkurrentzia publikoko diru-laguntzak hirian presentzia, egitura eta jardura duten organizazioei zuzendu behar zaizkiela uste da.

Ezinbesteko betekizuna da hori, baldin eta hiriko kolektiboaren eta Hegoaldeko aktoreen arteko elkartasuna —topaketa gisa— sustatzen lagundu dezatela lortu nahi bada.

Horregatik, parte hartu ahal izateko bete beharreko betekizuna zehazten da diru-laguntzak emateko deialdietan, presentzia, egitura eta jardura horiek modu objektiboan neurtzen dituzten irizpideen arabera.

Deialdien edo diru-laguntzen ildoaren arabera, zorrotzagoa edo ez hain zorrotza izango da eskakizun hori.

4.2.3 Bizikidetzarako lankidetzaren bultzatzea

Bestalde, etorkinen kolektiboetatik sortutako lankidetzaren ekimenetarako laguntza eman nahi da, lankidetzarako deialdien baitan. Horretarako, hiru eratako neurriak aurreikusten dira:

- Urteko proiektu txikiak —batez ere ekipamendu-proiektuak— gauzatzeko aukera emango duten diru-laguntzen ildo edo atala.
- Hirian tradizio bat duten GGKEek eta etorkinen kolektiboek elkarrekin bideratuko dituzten ekintzak lehenestea.
- Lankidetzaren proiektuen kudeaketari buruzko prestakuntza-jarduerak, esperientzia gutxi duten kolektiboak zuzendutakoak.

Bestalde, GGKEek kudeatzen dituztenak proiektu kateatuak lehenesten dira, arlo sozialeko Gasteizko nahiz jatorriko herrialdeetako profesionalen arteko trukeak ahalbidetzen dituztelarik, eta hiriko kolektiboak inplikatzeko.

4.2.4 Lehenetasun geografikoak

Planak uko egiten dio GGKEei eta bestelako entitate sozialei zuzendutako tresnentzat lehenetasun geografikoak definitzeari, abiapuntutzat hartuz horietako asko neurri txikiak direla, lankidetzaren harreman jakinak dituztela beren ibilbidean, eta ezin direla kanpoko lehenetasunetara egokitu.

Lankidetzak sakabanatu batek espezializatorik ezari, kudeaketari eta eraginen neurketari dagokionez sor ditzakeen eragozpenen jakitun izanik ere, uste izan da ezen, elkartasuna sustatzera bideratutako ikuspegitik, eragozpen horiek badutela konpentsaziorik, hiriko kolektibo eta pertsonak oso inplikaturik dauden harremanak sortzen diren aldetik.

Nolanahi ere, GGKEek —Gasteizko Udalaren laguntzarekin— lankidetzak bideratuko duten herrialdeak aukeratzeko modurik baduten neurrian, Afrikaren aldeko lehentasuna mantentzen da garapenerako lankidetzarako deialdietan, helburu bikoitzarekin, zein baita, baitetik, kontinente horretan lankidetzak sustatzea, eta bestetik, berriz, proiektuak baloratzeko orduan aintzat hartu ohi diren alderdietako zenbait betetzeko orduan Afrikako herrialde askotan izan ohi diren zailtasunak konpentsatzea.

Hala ere, bizikidetzarako lankidetzaren gidalerroak bai bihurtzen ditu lehentasunezko eremu kolektibo nagusien jatorrizko herrialde edo eskualdeak. Jatorrizko herrialdeei buruzko datuak udal erroldan islatuta ageri badira ere, ez da berdina gertatzen eskualdeekin. Hori dela, eskualde horiek identifikatzen saiatuko da Garapenerako Laguntzako Zerbitzua, eta mapa batera ekartzen, kolektiboan eta Bizikidetzak eta Aniztasun Zerbitzuaren laguntzarekin.

4.2.5 Lehentasun sektorialak

GGKEen parte handi baten espezializazio sektoriala dela eta, ez dago adostasunik lortzerik lehentasun sektorialen inguruan. Nolanahi ere, kontuan izanik Udalak lankidetzaren arloan egindako bidea, udal zerbitzuek laguntza teknikoak emateko dituzten benetako aukerak eta definitutako gidalerroak, lankidetzaren sektore hauei emango zaie lehentasuna:

- gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea,
- ura eta saneamendua,
- giza eskubideak babestea,
- ekonomia soziala eta solidarioa; bereziki, bidezko merkataritzarekin zerikusia duten ekimenak,
- ingurumena,
- esku-hartze sozialaren sektoreak, bereziki hiriko etorkin-kolektiboan jatorrizko herrialdeetan.

4.2.6 Garapen-bidean dauden herrialdeetako erakunde publiko lokalek Udalak lagundutako lankidetzak-ekintzekin dituzten harremanak

Lankidetzaren hartzailerik diren herrialdeetako askotan pisu gutxi izan dute erakunde lokalek garapen-politikan orain artekoan, eta administrazio publiko lokal horietako askok erakunde gisa errotu gabe jarraitzen dute, eta ez daukate behar diren baliabideak garapen-prozesu lokalen lidergoan beren gain hartzeko. Hala ere, udal lankidetzaren kezka izan

behar du laguntzen dituen garapenerako ekintzen eta erakunde horien plan eta ekimenen arteko sinergiak bilatzea, eta, ahal den neurrian, horiek duten ahalmena sendotzea.

4.2.7 Inplikaturako erakundearen erantzukidetasuna

Udalaren eta laguntza kudeatzen duen GGKE edo entitatearen erantzukidetasuna ez da mugatu behar proiektuak gauzatzeko hutsera, eta ez da bukatutzat jo behar laguntza ekonomikoak justifikatzearekin. Aitzitik, erantzukidetasun partekatua planteatu daiteke, lankidetzari esker martxan jartzen diren zerbitzu eta ekimenen benetako funtzionamendua bere baitan hartuko duena. Erantzukidetasuna horrela ulertzen delarik, zerbitzu edo ekimen horien jarraipena egiteko mekanismoak bilatu beharko lirateke, horrek erantzukidetasun-aldia luzatzen duela eta berariazko baliabideak eskatzen dituela onarturik.

4.3 GGKEei eta herritar-entitateei diru-laguntzak emateko tresnen deskribapena

4.3.1 Proiektu kateatuak identifikatzeko deialdia¹⁰

Hainbat urteko proiektuak edo proiektu kateatuak identifikatzeko deialdia	
Xedea	2017-2019 aldirian gauzatzeko lankidetzak-proiektuak identifikatu eta formulatzea, giza garapen lokalaren ikuspegitik
Urtea	2016
Gauzatzeko denbora	6 hilabete
Betebeharrak	Hirian presente egotea eta jardutea.
Generoa	Proiektu guztietarako gutxienezko betebeharrak definituta
	Berdintasuna sustatzeko proiektuak lehenetsita
	Gutxienezko genero-emaitzak definituta
Sektore lehenetsiak	Ura eta saneamendua; berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea; bizikidetzarako lankidetzak (arloan sozialak, etorkin-kolektiboan jatorrizko herrialdeetan); ingurumena, eta ekonomia sozial eta solidarioa.

4.3.2 Proiektu kateatuetarako urteko deialdia

“Urteko proiektu kateatuak” izeneko deialdia izango da, ekintzei jarraitutasuna ematea ahalbidetzen duen mekanismo bat izango duena. Lehen urtean A atala irekiko da —abia-

¹⁰ Erosotasunagatik, “deialdi” hitza erabiliko dugu aurrerantz, nahiz eta bere baitan hainbat ildo hartzen dituen deialdi baten berariazko atal bat izan litekeen zenbaitetan.

tzekoa—, zeinek berekin ekarriko baitu hiru edo lau urtez lurralde jakin batean esku hartzeko konpromisoa, eta esku-hartze horri ekitea ahalbidetuko. Bigarren urtetik aurrera, “jarraitutasuna” emateko J atala izango da, aldeztatik abian jarritako ekintzetarako erreserbatua. Proiektuek jarraitutasunik izango badute, modu egokian garatu beharko dira, eta aurrerakuntzak egin hiru esparrutan: generoaren arloan, garapen-ekimen lokalekin artikulatzeari dagokionean eta Gasteizko kolektiboen eta proiektuaren protagonisten arteko harremanetan.

2016an J atala irekiko da, 2013an hasitako proiektuak bukatzeko aukera emate aldera¹¹. 2017an A atala irekiko da, hau da, 2018an eta 2019 jarraituko duten proiektuen ziklo berria.

Proiektu kateatuetarako urteko deialdia	
Xedea	Giza garapena, lurralde batean, 3-4 urtez
Urteak	2016: 2013an hasitako proiektuen jarraipena 2017: ziklo berria abian jartzeko atala 2018 eta 2019: 2017an hasitako proiektuen jarraipena.
Betebeharrak	Hirian presente egotea eta jardutea.
Jarraitutasunerako betebeharrak (urte batetik bestera)	Aurrerakuntzak generoaren arloan Aurrerakuntzak garapen-ekimen lokaleko koordinazioan Sentsibilizazioaren eta trukeen arloko emaitzak
Sektore lehenetsiak	Ura eta saneamendua; berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea; bizikidetzarako lankidetzaren (arlo sozialak, etorkin-kolektiboen jatorrizko herrialdeetan), eta ekonomia sozial eta solidarioa.
Generoa	Proiektu guztietarako gutxieneko betebeharrak definituta
	Berdintasuna sustatzeko proiektuak lehenetsita
	Gutxieneko genero-emaitzak definituta
Elkartasuna, topaketa gisa	Hiriko kolektibo bati zuzendutako berriazko sentsibilizazioa - Truke bat, Gasteizen, bigarren eta hirugarren urteen artean.
Gauzatzeko denbora (urtekoa)	12 hilabete

11 Aurreikusitakoaren kontra 2015ean —aurrekontu-partidarik izan ez zelako— laguntza eman ezin izan zitzaizkien proiektuak.

4.3.3 Ekipamendu-proiektu txikietarako deialdia

Ekipamendu-proiektuetarako urteko deialdira	
Xedea	Ekipamenduen arloko ekintza puntualak ahalbidetzea
Denbora-tartea	Urtea
Gauzatzeko denbora	6 hilabete
Betebeharrak	Hirian presente egotea eta jardutea.
Generoa	Proiektu guztietarako gutxieneko betebeharrak definituta
Bizikidetzarako lankidetzaren	Etorkin-kolektiboak inplikaturik dauden lankidetzaren ekimenak ahalbidetu behar ditu.

4.3.4 Giza eskubideak babesteko deialdia

Egungoaren antzekoa izango da giza eskubideak babesteko deialdia. Ekintzei eta horiek bideratzen diren inguruei buruzko informazioa eta komunikazioa indartuko dira.

Giza eskubideak babesteko deialdia	
Xedea	Giza eskubideak babesteko ekintzetarako laguntza, egoera hauetan: gatazka-egoerak; emakumeen eskubideen urraketa; haurren babesa; kartzelatuen, garapen-bidean dauden herrialdeetan barrena igarotzen ari diren migratzaileen eta sexu-aukeragatik arriskuan dauden pertsonen babesa.
Denbora-tartea	Bi urteko proiektu kateatuetarako urteko deialdia —bigarren urtean proiektuei jarraitutasuna emateko bakarrik aurkez daitezke— 2016-2017 zikloa 2018-2019 zikloa
Gauzatzeko denbora (urtekoa)	12 hilabete
Elkartasunaren sustapena	Ezinbesteko betebeharra da hirian informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak bideratzea
Generoa	“Emakumeen eskubideen urraketaen kontra borrokatzeko jardura-programak” dira aurreikusitako ekintza-motetako bat, eta beste bat, berriz, sexu-aukeragatik arriskuan dauden pertsonen babesa.
Udalaren inplikazioa	Udal politikariei eta hiriko sindikoari berriazko informazioa ematea.

4.3.5 Urteko proiektuetarako deialdia

Deialdi hau ez da lehentasunezko zat jotzen. Hurrengo urteetarako bermatuta ez dauden zenbatekoak esleitzeko baliatuko da, hau da, bereziki % 0,7tik gorako diru-kopuruak esleitzeko.

Sektore edo ezaugarri jakineko proiektuetara mugatu ahal izango da deialdia.

2016an, baldin eta aurrekontuak ez badu % 7a gainditzen, LGTB pertsonen eskubideak babesteko proiektuetara mugatuko da urteko proiektuen atala, 2014ko deialdiko L atalari jarraipena emate aldera.

4.3.6 SEADen Lagunen Elkartearikiko hitzarmena

Gasteizko Udalean saharar herriarekiko elkartasunaren inguruan dagoen kontsentsu politikoa islatzen du SEADen Lagunen Elkartearikiko hitzarmen orokorrak. Tindufeko erre-fuxiatuen kanpamenduetan lankidetzak eta laguntza humanitarioa gauzatzeko aukera ematen du, eta, aldi berean, Gasteizen bertan informazio- eta sentsibilizazio-ekin-tzak bideratzeko. Azken urteotan, Marokok okupatutako lurraldeetan giza eskubideak aldezteko ekintzetarako ere ematen da laguntza.

Azken urteetako lan-ildoetara jarraipena emango die 2016ko programa operatiboak:

- janarietarako laguntza,
- berdintasunerako eta emakumeak ahalduzko ekimenetarako laguntza (Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren bitartez),
- kanpamentuetako gazteei zuzendutako proiektuak,
- giza eskubideak lurralde okupatuetan.

Hitzarmenaren baterako balioespena egingo da 2016an. Besteak beste, balioespenaren ondorioz hainbat gomendio egitea espero da, hitzarmenaren baitako jardueraren, aintzat hartu beharreko lan-ildoetara eta ekintzen planifikazioaren inguruan.

Kontuan izanik saharar kolonia aski handia dagoela Gasteizen, saharar horiekin harremanetan diharduten udal langileekin truke-ildo bat irekitzeko ahaleginak egingo dira.

Hitzarmenaren baitako ekintzen jarraipena egiteko eta bidenabar saharar herriarekiko elkartasunaren alorreko inplikazio instituzionala berresteko, Gasteizko Udalaren ordezkari-tza baten bidaia programatuko da 2016-2019 aldian, bertara joateko.

4.3.7 Larrialdietarako Arabako Funtza

Larrialdietarako Arabako Funtza	
Ezaugarriak	Garapen-bidean dauden herrialdeetako larrialdietan laguntza ekonomikoa emateko tresna, Arabako Foru Aldundiarekin batera sortua. Urtean lauzpabost larrialdi-egoerari erantzuteko aukera ematen du, erakundeek aurreratzen duten eta, beraz, bizkortasunez ordain daitezkeen funtsei esker.
Agente nagusiak	GGKE
Denbora-tartea	Mekanismo iraunkorra.
Gauzatzeko epea	6 hilabete
Betebeharrak	Funtsaren laguntzaile gisa izena emanda dauden GGKEak
Generoa	Ezinbesteko baldintza da emakumeak ez diskriminatzea

4.4 Izaera municipalistako lankidetzak

“Izaera municipalistako lankidetzak” izenaren baitan, lankidetzak-mota hauek sartzen ditugu:

- Hegoaldeko erakundeekiko zuzeneko lankidetzak, aldi baterako hitzarmenen bidez arautua,
- Euskal Fondoaren baitan bideratzen den lankidetzak —erakunde horretako kide da Udala, eta 1998az geroztik du sinatua hitzarmena—,
- beste lankidetzak-eredu batzuk:
 - . goragoko erakundeek bultzatutako programak —Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia, Europako Batzordea, nazioarteko erakundeak, batez ere NBE sistemakoak—, erakunde lokalen partaidetzara irekiak,
 - . udal sareetako proiektu edo programak.

Uste izan da ezen, laguntza ekonomikoa ez ezik, laguntza teknikoa emateko ere marko guztiz egokia dela era horretako lankidetzak.

4.4.1 Lehentasun geografikoak

Ez da lehentasun geografiko esturik definitzen.

Abiapuntutzat hartu da Udalak zuzeneko hitzarmenen edo Euskal Fondoaren bitartez orain artean bideratu duen izaera municipalistako lankidetzaren El Salvadorren, Kuban, Guatemalan eta Kolonbian zentratu izan dela. Horrenbestez, logikoa da herrialde horietan izandako esperientzia kapitalizatzea.

Orobat jotzen da lehentasunezko zatitza etorkin-kolektiboen jatorrizko lekuetako erakunde lokalekiko harremana, bereziki "bizikidetzarako lankidetzaren"ren baitan txertatzen bada.

Edonola ere, hizkuntzaren inguruko kontsiderazioek zailago bihurtzen dituzte herrialde latinoamerikarretatik kanpoko erakundeekiko lankidetzaren harremanak.

4.4.2 Sektore-lehentasunak

Udalak "egiten dakien" eta teknikoki inplikatzeko gaitasuna duen sektoreetara mugatuko da izaera municipalistako lankidetzaren.

Udal sail, enpresa eta erakunde autonomoek beren gain hartutako konpromisoen ildotik, honako hauek dira lehentasunezko zatitza jotzen diren sektoreak, laguntza tekniko emateari dagokionez:

- ura eta saneamendua,
- gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako politika lokalak,
- politika sozial lokalak, bereziki bizikidetzarako lankidetzaren ikuspegitik,
- ingurumena,
- herritarren partaidetza, elkarrengandik ikastearen eta trukearen ikuspegitik.

Herrialde jakin batean municipalismoari edo deszentralizazio-politikei laguntzeko programetan parte hartzekotan, bi baldintza hauek bete beharko dira:

- Alde baterik, nahikoa lankidetzaren esperientzia izatea herrialde horretan, edo hiriko etorkin-kolektibo handi baten jatorrizko herrialdea izatea.
- Bestetik, arrazoizko bermeak edukitzea herrialde horretako marko politiko-instituzionalak emaitza zehatzak eta esanguratsuak lortzeko aukerak ematen dituela.

4.4.3 Lankidetzaren municipalistaren tresnak

4.4.3.1 Euskal Fondoarekiko hitzarmena

Euskal Fondoaren lan-ildoak erakunde horretako zuzendaritza-organismoek erabakitzen dituzte. Beraz, ez daude bakar-bakarrik Gasteizko Udalaren borondatearen mende. Horregatik, Euskal Fondoak eta Gasteizko Udalak 1998an sinatutako hitzarmen orokorra deskribatzen da, Euskal Fondoaren egungo jardura-irizpideak abiapuntutzat harturik, eta aurrera begira egin litezkeen zenbait proposamen jasotzen:

Euskal Fondoarekiko hitzarmena	
Ezaugarriak	Urteko programak onestea aurreikusten duen hitzarmen orokorra
Esku hartuko den herrialdeak	Hitzarmen horren baitan, herrialde hauetan bakarrik bideratuko du lankidetzaren Gasteizko Udalak: Kuban. El Salvadorren, Guatemalan eta Nikaraguan. Eta alde batera utziko du SEADeko esku-hartzea.
Agente nagusiak	Garapen-bidean dauden herrialdeetako erakundeak
Denbora-tartea	Urteko programak, baina laguntza jarraitua hainbat urteko esku-hartzeetarako
Lankidetzaren teknika	Udal teknikarien parte hartzea, proiektu gehienetan. Bazkide lokalekin truke gehiago egiteko ahaleginak egingo dira
Generoa	Ekintza guztietarako gutxieneko baldintza espezifikoak Berdintasun-politika lokalekin erlazionaturik dauden proiektuak lehenetsiko dira, edo genero-ikuspegia argi eta garbi txertatua dutenak Bere lankidetzaren ekintzetan genero-ikuspegia gero eta gehiago sartzea proposatuko zaie Euskal Fondoko zuzendaritza-organoei
Identifikazioa	Bereziki uraren eta saneamenduaren arloan, ingeniari-azterlanak eskatu ohi dituzten proiektuak identifikatzeko baliabideak jar ditzala proposatuko zaio Euskal Fondori.

4.4.3.2 Garapen-bidean dauden herrialdeetako erakunde lokalekiko zuzeneko lankidetzaren hitzarmena.

Hegoaldeko erakunde lokal batekin zuzeneko lankidetzaren harremanak mantentzea da Udalaren asmoa.

2016an, jasotako lankidetzaren proposamenak abiapuntutzat harturik, era horretako hitzarmen baten identifikazio zehatza egingo da, eta, hala erabakiz gero, 2017 eta 2019 urteen artean garatuko da.

Zuzeneko lankidetzaren hitzarmen batek bildu behar dituen ezaugarriak azaltzen dira ondoren.

Garapen-bidean dauden herrialdeetako erakunde lokalekiko hitzarmena	
Geografia-eremua	Ahal den neurrian: - Lehendik zuzeneko lankidetzaz-erperientziarik izan den herrialde bat. - Hirian nolabaiteko munta duen migratzaile-komunitate baten jatorrizko herrialdea.
Sektorea	Lankidetzaz munizipalista zela eta lehentasunezko zatitza definitutako sektoreetako bat.
Betebeharrak	2001ean onartu ziren lankidetzaz-hitzarmenak onesteko oinarrietan zehazten diren irizpideak betetzea; tartean, Lankidetzaz Kontseiluaren iritzia eskatzea. Identifikazio zehatza egitea
Bereziki kontuan hartzeko irizpideak	Erakundearen plangintza (garapen-plana edo baliokidea) Erakundearen ibilbidea eta orientazioa, oinarritzko zerbitzuen eta sektorerik behartsuenei arreta ematearen arloan, eta politika sozialetan eta partaidetzaz-politiketan. Erakundearen lankidetzazaren aurrekariak.
Generoa	Zehaztutako gutxieneko betebeharrak betetzea Emitza zehatzak eskatuko dira urtero, generoaren arloan.
Udalaren inplikazioa	Ezingo da mugatu ekarpen ekonomikoraz; aitzitik, ezinbestean sartu beharko dira lankidetzaz teknikoaren edo trukeen arloko ekintzak
Denbora-tartea	Hiru urteko indarraldia izan beharko luke hitzarmenak (2017-2019)

4.4.3.3 Udal lankidetzazaren edo lankidetzaz deszentralizatuaren baitako programak

Udalak jasotzen dituen esku-hartzeko proposamen zehatzak kontuan izanik, eta, era berean, udal zerbitzuek parte hartzeko duten gaitasuna eta destinoko herrialdeekiko interesa, goragoko esparruko erakundearen lankidetzaz deszentralizatuako programetan esku hartzeko aukera aztertuko da. Udal programaz horietan emango duen laguntza ez da bakar-bakarrik ekonomikoa izango, baizik eta baita tekniko eta trukeen arlokoa ere.

Arreta berezia eskainiko zaie Garapenerako Lankidetzazaren Euskal Agentziaren proposamenaz, Europako Batzordearen lankidetzaz deszentralizatuako programen baitakoei eta Nazio Batuen Garapenerako Programarekin lotura duten ART¹² programei.

Udalaren parte-hartzea, horrelako proiektuetan, zuzena izan ahalko da, edo Euskal Fondearen bitartez gauzatu, eta lankidetzaz-hitzarmenak onesteko oinarrietan adierazten diren irizpideak bete beharko ditu.

4.5 Kalitatea eta efikazia hobetzeko neurriak

Kalitatea eta efikazia hobetzeaz diharduen gidalerroarekin zerikusia duten alderdiak garatzen dira atal honetan.

4.5.1 Proiektuak eta programak identifikatzeko baliabideak

Oro har, jarduerak identifikatu eta planifikatzeko denborak eta baliabideak aurreikusi beharko dituzte lankidetzaz-tresna batzuek eta besteek. GGKEek eta beste erakunde sozial batzuek burutzen duten lankidetzazari ez ezik lankidetzaz munizipalitari ere aplikatuko zaio irizpide hori.

4.5.2 Hizkuntza-irizpidea txertatzea

Gasteizko Udalak lankidetzazarako diru-laguntzak emateko egiten dituen deialdien oinarrietan —proiektuen baremazioetan— aspaldiko urteetan dago jasota “ekintza planifikatzean eta garatzean herritarren faktore linguistikoa, kultural, sozial, erlijiozkoak edo idiosinkrasiaren ingurukoak aintzat hartzea”. Nolanahi ere, garrantzizkoa iruditzen zaigu hizkuntza-irizpidea aintzat hartu behar dela berriaz jasota uztea —hau da, parte hartzen duen populazioaren hizkuntza erabili behar dela jardueraren fase guztietan—. Hartara, “hizkuntza-komunitate orok bere hizkuntza erabiltzeko, horri eusteko eta kultura-adierazpen guztietan bultzatzeko” duen eskubidea¹³ gauzatuko da, eta inplikatuak pertsonen proiektua benetan bere egingo dutela bermatu ahal izango da.

4.5.3 Udal zerbitzuen laguntza

4.5.3.1 Zerbitzu espezializatuak proiektuen berrikuspen teknikoaz egitea

Ahal den guztietan, udal zerbitzu espezializatuak bidaliko zaizkie proposamen edo proiektu teknikoak.

¹² Lurralde-sareak taxutzea

¹³ “Hizkuntza-eskubideen Adierazpen Unibertsala”, Bartzelona, 1996, 41. artikulua.

4.5.3.2 Proiektuen jarraipen teknikoa

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egiten duen izaera orokorreko jarraipenaren osagarri, udal zerbitzu tekniko eskudunak inplikatu ahal izango dira proiektuen jarraipenean.

Bereziki, azpiegituretan munta handiko inbertsioak egitea eskatzen duten uraren eta saneamenduaren arloko proiektuak bertara joanda ikuskatuko dituzte udal teknikariek. Era berean, gerora ere, martxan jarritako zerbitzuen jarraipena egiteko ahaleginak egingo dira, zerbitzuaren kudeaketari buruzko informazioa aztertuz.

Lekuan bertan ikuskapen espezializatua egin beharra badago eta udal langileek egiterik ez badute, langile espezializatuak kontratatu ahal izango dira.

4.5.3.3 AMVISAREN laguntza

AMVISA udal enpresaren kasuan —lankidetz-ibildide luzea egina baitu horrekin Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak—, lankidetz-ildo nagusiak adostuko dira. Indarrean dauden printzipioetan oinarrituko dira ildo nagusi horiek, esan nahi baita honela gauzatuko dela AMVISAREN lankidetz-:

- uraren eta saneamenduaren arloan, eta ez bestetan,
- eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin koordinaturik.

Enpresaren lankidetzarako aurrekontua banatzeko irizpideak definitu beharko dituzte ildo horiek —lankidetzarako deialdira bilduko da parte bat, uraren eta saneamenduaren arloko proiektuetarako—, baita lankidetz teknikoaren eta sentsibilizazioaren arlokoaren irizpideak ere.

Enpresako administrazio-kontseiluak onetsi beharko ditu ildo nagusi horiek.

4.5.4 Emaitzak eta adierazleak definitzea

Laguntzen diren lankidetz-ekintzen emaitza zehatzak neurtu eta komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa da adierazleak edukitzea. Proiektuak planifikatzeko ohiko metodologiak aurreikusten dituzte, baina maiz biderkatu egiten dira adierazleak ekintza bererako, hauek baloratu nahi izaten baitira:

- emaitza praktikoak, populazioaren bizi-baldintzen hobekuntzari dagokionez,
- emaitzak, ahalmen lokalak —pertsonalak, sozialak, instituzionalak— sendotzeari dagokionez,
- gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko emaitzak,
- eta abar.

Adierazleak baliatzeak, modu egokian formulatzeaz gain, eskatzen du hasierako datuak edukitzea (oinarrizko ildoak), baita horien bilakaeraz jabetzeko aukera emango duen informazioa biltzeko sistema bat ere, eta baliabide espezifikoak behar dira horretarako.

Proiektuak onetsi ondoren, adierazleak identifikatuko dira —bat, bi edo hiru— entitate arduradunetako bakoitzarekin batera, emaitzei eta eraginari dagokienez esanguratsuak, zeinen neurketa bermatu beharko baita, komunikaziorako baliatzerik izan dadin. 2013-2016 zikloko proiektu kateatuen emaitzei aplikatuko zaie neurri hori, modu pilotuan.

Egoki denean, erabiltzen diren adierazleak garapen jasangarriko helburuekin erlazionatzeko ahaleginak egingo dira.

4.5.5 Lankidetz-ekintzen baitako sentsibilizazioa

Epe ertaineko proiektuek informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak ekarri beharko dituzte berekin, eta, egoki bada, hiriko kolektibo jakin bati zuzendutako truke-ekintzak. Ekintza horien kostuak diru-laguntzaren kontura joan ahal izango dira.

Sortzen duten enpatia eta elkartasunaz gain, udalerriko herritarrek proiektuak zuzenean ezagutzeak eta horietan benetan inplikatzeko bermea ematen die —zalantza izpirik utzi gabe— gauzatu egingo direla eta emaitzak izango dituztela, lankidetzarako funtsak zertarako baliatzen diren bestela sor litezkeen zalantzen aurrean.

4.5.6 Proiektuen ebaluazioa

Proiektuen kanpo-ebaluazioa kontratatuko da urtero. Proiektua hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan: egindako inbertsioaren zenbatekoa, proiektuaren sektoreak Udalaren lankidetzan duen garrantzia eta esperientzia errepikatzeak aukerak. Generoari dagozkion betebeharrak bete diren neurtzea izango da ezinbesteko elementuetako bat ebaluazioan —tresna bakoitzean eskatzen zena aintzat harturik—.


Batez ere, gerora egingo dira eraginaren ebaluazioak, nahiz eta proiektua gauzatu bitartean egiterik ere izango den, baldin eta proiektua berrikusteko edo beste orientazio bat emateko premia dagoela ikusten bada. Eraginaren ebaluazioetan, berariazko atal bat izango da, proiektuak generoaren arloan izandako eragina neurtzeko.

Nolanahi ere, prestakuntza-prozesu gisa ulertzen dira ebaluazioak, ez dira emaitzen fiskalizazio hutsak izango, eta, horrenbestez, elkartasun-ekintzaren prozesua ez ezik, baldintzak eta testuinguru espezifikoak ere aintzat hartu beharko dituzte.

Ebaluazioak burutu ondoren, lan-saioak eta mintegiak egingo dira, emaitzak eta irakaspenak sozializatzeko.

4.5.7 2001eko “lankidetz-hitzarmenak onartzeko oinarriak” berrikustea

Aurreko gida-planaren ebaluazioan egindako gomendioa aintzat harturik, 2016an berrikusi egingo dira lankidetz-hitzarmenak onesteko oinarriak, gida-planera egokitzeak. Lankidetz Kontseiluarekin kontsultatuko da berrikuspen hori.



**5. LAUGARREN ZATIA:
HIRIAN JARDUTEA**
Sentsibilizazioaren eta
garapenerako hezkuntzaren
marko operatiboa

Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza zein ikuspuntutatik landu nahi den laburzki gogora ekarri ondoren, hurrenez hurren zehazten dira GGKEei zuzendutako tresnak, bidezko merkataritzaren programa, beste udal zerbitzu batzuekin elkarlanean egingo diren ekintzak eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari dagozkion zereginak.

5.1 Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza: ikuspegiak eta esku hartzeko moduak

Herritarren elkartasunaren sustapentzat ulertzen ditu Gasteizko Udalak sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza. Luis Alfonso Arangurenek proposatzen duena da arlo honetatik sustatu nahi den elkartasun-mota: elkartasuna topaketa gisa.

Herritartasun globalerako hezkuntza: eskusioaren eta inklusioaren ikuspegia.

Aurreko gida-planak, jada, bere egiten zuen “herritartasun globalerako hezkuntza”, zeinek, Iparra/Hegoa ikuspegi geografikoaren lekuan, eskusioaren eta inklusioaren ikuspegia hartzen baitu aintzat. Abiapuntutzat hartzen da garapenik eza dagoeneko ez dela Hegoaldeko arazo bat, ezpada arazo globala, planeta osoari eragiten diona. “Izatez, ez da Hegoa, bere horretan, eskusio-egoeran dagoena, baizik eta Hegoaldeko masa popularrak, baita Iparraldeko populazioaren parte gero eta handiago bat ere, horiek guztiak izaki eskusioaren biktimak.”¹⁴

Beraz, garapen-ereduaren beraren krisiaz ari gara, eta esparru lokalean nahiz globalean egin beharreko lanaz, elkarri lotuta baitaude biak.

Eskusioa eragiten duen globalizazio ekonomikoaren aurrean, elkartasunaren globalizazioa indartu nahi da garapenerako hezkuntzaren bitartez. Gizarte bakar bereko kide izatearen sentimendua berresten du ikuspegi horrek, pertsona orok giza eskubideak eta mugitzeko askatasuna bermatuta izan behar dituzten gizarte bakar berekoak.

Gizarte eraldatzeko hezkuntza

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Garapenerako Lankidetzaren III. Gida-planean (2014-2017), berriz, gizarte eraldatzeko hezkuntza aipatzen da. Ezaugarri hauek aitortzen dizkio:

- dimentsio politiko-etikoa, (inter)kulturala eta pedagogikoa,
- esku-hartzeko estrategiek honako hauek konbinatu behar dituzte: (i) eragin politikoa; (ii) berrikuntza eta sorkuntza metodologikoa; (iii) ikerketa; (iv) prestakuntza, eta (v) komunikazioa, elkartrukea eta ikaskuntza kolektiboa,
- jarduera-eremuen (hezkuntza formala, ez formala eta informala) eta esparru bakoitzean jardun behar duten agenteen bereizketa,

14 “Educación para el desarrollo: una estrategia de cooperación imprescindible”, CONGD – Espainia, 2005.

- eta aplikatu beharreko zeharkako lerroak: ahalmen lokalak sendotzea, partaidetza eta antolakuntza, genero-ekitate, giza eskubideak eta iraunkortasun ekologikoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Gizarte Eraldatzeko Hezkuntzarako estrategia lantzen ari da gaur egun, modu parte-hartzailean, maila instituzional desberdinetan partekatutako den estrategia izateko borondatearekin. Garapenean Laguntzeko Zerbitzua prozesu horretan parte hartzen ari da.

Plan honen esparruan, herritartasun globalerako edo gizarte eraldatzeko hezkuntza sustatu nahi da, elkartasuna globalizatuz, mundu bakar bateko kide izatearen sentimendua berretsiz eta hiriko pertsona eta organizazioak aldakuntzaren agente izatera animatuz, bai Gasteizen, bai maila globalean.

Esku hartzeko moduak

Posible diren esku hartzeko moduen artetik, alde batetik publiko identifikatuei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzetarako laguntza ematen saiatuko da Udala, eta, bestetik, garapenerako hezkuntzaren arloko programa egituratu eta iraunkorretarako, esparru formalean, ez formalean nahiz informalean. Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko berriazko lan-ildoari eusten zaio. Gainera, eragin publiko eta mediatiko handiagoa lortu nahi den zenbait jardura urteko aste jakin batean biltzeko asmoa dago.

Era berean, komunikazio-metodologia bat definitu beharko da, Gasteizen —garapenerako lankidetzaren arloan— lortzen diren emaitzei eta bideratzen diren jardunbide egokiei zabalak emateko.

Horretarako, alde batetik GGKEei zuzendutako diru-laguntzak emango dira, eta, bestetik, udal zerbitzuek kudeatuko dituzten hezkuntza-programak bideratuko, baita Garapenean Laguntzeko Zerbitzuen beraren ekintzak ere.

5.2 Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza, GGKEen bitartez

5.2.1 GGKEei eta beste herritar-entitateei zuzendutako finantzaketa-tresna eta ildoak

Hauek izango dira GGKEek sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan kudeatzen dituzten ekintzak finantzatzeko tresna eta ildoak:

- urteko sentsibilizazio deialdia¹⁵,
- garapenerako hezkuntzako hainbat urterako proiektuetarako deialdia —proiektuak identifikatzeko deialdia egin ondoren—,

15 Sinplifikatze aldera, “deialdi” hitza baliatzen dugu, nahiz eta deialdi zabalago baten baitako berriazko atal edo ildo bat izan litekeen zenbaitetan.

- SETEM-Hego Haizearekiko hitzarmena, boluntarioak prestatzeko,
- "Oporrak bakean" programarako hitzarmena,
- bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko hitzarmena,
- Euskadiko GGKEen Koordinakundearekiko hitzarmena.

Nolanahi ere, tresna horiek berrius daitezke.

5.2.2 Garapenerako hezkuntzako hainbat urterako baterako proiektuak identifikatu eta formulatzeko deialdia

Garapenerako hezkuntzako hainbat urterako baterako proiektuak identifikatu eta formulatzeko deialdia	
Denbora-tartea	2016
Xedea	2016-2017, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan gauzatzeko diren garapenerako hezkuntzako proiektuak identifikatu, planifikatu eta formulatzeko ekintzak
Betebeharrak	Partzuergo batek —gutxienez hiru erakundek, tartean bi GGKEk osatuak— edo sare egonkor batek aurkeztea Genero-ikuspegia txertatzea
Generoa	Bete beharreko baldintza izango da proiektuaren fase guztietan genero-ikuspegia txertatzea —identifikatu eta formulatzean, helburuetan, emaitzetan, jardueretan eta materialetan—

5.2.3 Garapenerako hezkuntzako hainbat urterako baterako proiektuetako deialdia

Garapenerako hezkuntzako hainbat urterako baterako proiektuetako deialdia	
Xedea	Hiru ikasturtez egiteko diren garapenerako hezkuntzako proiektuak finantzatzen laguntzea
Ekintza-motak	Hezkuntza jarduerak, ongi definitutako xede-taldeekin; balio- eta jarrera-aldaketak sustatzen dituzten helburu eta estrategiak, jendearengana iristeko modukoak, ekintzara zuzenduak. Izaera ebolutiboa izango dute. Azken ikasturterako behintzat, inplikazio-emaitzak lortu beharko dira dimentsio politikoan (adibidez, kolektibo jasotzaileek elkartasun-jarduera edo -mobilizazioetan edo gizartea eraldatzekoetan parte hartzea) edo kulturean (jokabideak).

Denbora-tartea	Hiru ikasturteetan zehar garatzeko proiektuak (2016-2017, 2017-2018 eta 2018-2019) Deialdi kateatua: Hasierako urtea: 2016. 2017an eta 2018an deialdia: bigarren eta hirugarren urtean lehenengoan onetsitako proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.
Lehentasunezko gaiak	Giza eskubideak, migrazioak, ekonomia soziala eta elkartasunezkoa, globalizazioa, nazioarteko gatazkak, Afrika kontinentearen egoera.
Betebeharrak	Partzuergo batek —gutxienez hiru erakundek osatuak— edo sare egonkor batek aurkeztea Genero-ikuspegia txertatzea
Generoa	Bete beharreko baldintza izango da proiektuaren fase guztietan genero-ikuspegia txertatzea —identifikatu eta formulatzean, helburuetan, emaitzetan, jardueretan eta materialetan—
Beste udal zerbitzu batzuen lankidetzak	Zenbait sailen hezkuntza-programetan jarduera jakin batzuk sartzeko aukera

5.2.4 Nazioarteko elkartasunerako sentsibilizazioaren alorreko deialdia

Nazioarteko elkartasunerako sentsibilizazioaren alorreko deialdia	
Maiztasuna	Urtea
Xedea	Nazioarteko elkartasunerako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzetarako laguntza ematea
Ekintza-motak	Jarduera puntualak —sentsibilizazioaren arloko hitzaldiak, informazio-solasaldiak, prestakuntza-ikastaro laburrak, mintegiak, erakusketak, ikuskizunak, antzerki-lanak eta abar—. Helmen handiagoko jarduera programatuak (kanpaina, aste edo hamabostaldi tematikoak).
Generoa	Proiektu guztietarako gutxieneko betebeharrak definituta Genero-berdintasunaren alorreko lehentasunezko gaien inguruko proiektuak
Beste udal zerbitzu batzuen lankidetzak	Udal espazioak uztea Jarduerak beste udal zerbitzu batzuen programazioetan sartzeko aukera; esate baterako, data jakinen inguruan —nazioarteko egunak eta abar—, edo Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolarenaren gisako programazioetan.

5.2.5 “Oporrak bakean” hitzarmena

“Oporrak bakean” programarako hitzarmena	
Xedea	Tindoufeko (Aljeria) kanpamentuetako haur sahararrak Gasteizko familietan hartzea, udako bi hilabeteetan. Arabako gizartea saharar herriaren egoeraren inguruan sentsibilizatzea da programaren helburuetako bat.
Sinatzaileak	AFANIS (Asociación de Familias de Acogida de Niños y Niñas Saharais) eta Frente Polisarioak EAEan duen ordezkariak
Denbora-tartea	Urtez urteko hitzarmena

5.2.6 SETEM Hego Haizearekiko hitzarmena

SETEM-Hego Haizearekiko hitzarmena, boluntarioak prestatzeko programarako	
Xedea	Ikastaro teoriko-praktikoak antolatzea, zeinetan batez ere gazteek parte hartzen baitute eta garapen-bidean dauden herrialdeetako errealitatearekin eta horrek gure gizartearekin dituen erlazioekin zerikusia duten hainbat gairen inguruko prestakuntza jasotzen baitute. Elkartasunerako auzolandegietan parte hartzeko aukera dute gazte horietako zenbaitek (GGKE horren lankidetzaren ekintzen bidez).
Denbora-tartea	Urtebete (ikasturte bat)
Ezaugarria	Gasteizen burutzen den prestakuntza-programa jarraitu bakarra da.
Generoa	Generoari eta garapenera buruzko moduluak ditu boluntarioak prestatzeko programak

5.2.7 Euskadiko GGKEen Koordinakundearekiko hitzarmena

Euskadiko GGKEen Koordinakundearekiko hitzarmena	
Xedea	GGKEen Koordinakundearen Arabako ordezkariaren funtzionamendua. Hainbat zerbitzu, kide diren GGKEei. Jendaurreko informazioa. Sentsibilizazio-, komunikazio. eta mobilizazio-kanpainak.
Denbora-tartea	Urtez urteko hitzarmenak

5.3 Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua

Bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren sustapena artikulatzen da, metodologia bikoitzarekin. Batetik, hitzarmena egiten da GGKEen partzuergo batekin, zabalkunde-ekintzak bideratzeko:

Bidezko merkataritza sustatzeko lankidetzaren hitzarmena	
Hauekin sinatzekoa	Setem Hego Haizea, Medicus Mundi Araba, Intermón Oxfam eta Elizbarrutietako Misiok ¹⁶
Justifikazioa	Hirian bidezko merkataritzaren arloan modu sistematikoan diharduten organizazioak dira.
Xedea	Bidezko merkataritzaren zabalkundea eta arlo horretako sentsibilizazioa, publiko jakinei zuzenduta —besteak beste, merkataritza tradizionalari eta ostalaritza-sektoreari, eta udal zerbitzuak kudeatzen dituzten entitateei—. Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatzea.
Denbora-tartea	2016-2019, urteko plan operatiboekin.
Bestelako laguntzaileak	Urteko plan operatiboa onartzean, beste organizazio batzuk ere bildu ahal izango dira horretara, lankidetzaren hitzarmen orokorrari atxikitzeko agiria sinatuz.

Bestalde, Udal barrura begira, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak berak bidezko merkataritzako produktuak erostera bultzatzen ditu hainbat udal zerbitzu, kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidearen ildotik, eta onesten diren kontratazioen jarraipena egiten.

Ilido beretik, udalbatzak 2015eko azaroaren 6an onetsitako mozioaren aplikazioaren jarraipena egingo da. Izan ere, horren arabera, garapenerako lankidetzara bideratzen diren aurrekontu-partidak “banka etikoaren irizpideei jarraitzen dieten entitateetan gordailatu eta haien bidez kudeatuko dira”.

5.4 Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, udal programen baitan

Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko jarduerak txertatze aldera Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin elkarlanean jardutea erabakia dagoen beste udal zerbitzu eta sail batzuen programak zerrendatzen dira ondoren.

¹⁶ Egibide, Elizbarrutiko Cáritas eta Elizbarrutiko Misiok hirian bultzatutako ekimena ordezkatzuz.

Berdintasun Zerbitzua	
Programa	Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskola
Maiztasuna	Urtebete (ikasturteko programazioa)
Nori zuzendua dagoen	Eskola erabiltzen duten emakumeei
Programaren helburua	Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako sentsibilizazioa
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	Udalak laguntzen dituen proiektuekin zerikusia duten esperientzia eta problematikak
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Jarduerak proposatzea

Berdintasun Zerbitzua	
Programa	Martxoaren 8ko programazioa —Emakumeen Nazioarteko Eguna— eta azaroaren 25ekoa —Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna—
Maiztasuna	Urtea
Nori zuzendua dagoen	Hainbat emakume-kolektibori
Programaren helburua	Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako sentsibilizazioa
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	Lankidetzaproiektuekin eta giza eskubideak babesteko proiektuekin zerikusia duten esperientziak
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Jarduerak proposatzea, GGKEekiko lankidetzaz erraztea, garapen-bidean dauden herrialdeetako emakume-organizazioekiko harremanak

Montehermoso kulturunea	
Programa	Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa
Maiztasuna	Urtekoa (hainbat aste)
Programaren helburua	Sorkuntza artistikoaren arloko proiektua, hiriko kolektibo edo agente artistikoen eta GGKEen artean egina
Nori zuzendua dagoen	Montehermoso kulturunera jotzen duten ikusleei
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	Nazioarteko izaerako giza eskubideen arloko gaiak
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Proiektua aukeratzeko parte hartzea. Gaiak proposatzea. Ekarpene ekonomikoa

Hezkuntza Zerbitzua	
Programa	Azoka Txikia
Programaren helburua	Haurrekin zerikusia duen lankidetzaz-ekintza jakin baten inguruko elkartzasuna sustatzeko sentsibilizazioa
Nori zuzendua dagoen	Parte hartzen duten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei Gizarte etxeetako ludoteketako hurrei
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	Aukeratutako proiektuaren inguruko sentsibilizazioa, ikasgeletan eta ludoteketan, hura kudeatzen duen GGKEaren laguntzarekin. Gerora, gurasoen eta ikastetxearen laguntzarekin, parte hartzen duten hurrek erabilitako jostailuak biltzen dituzte (egoera onean daudenak), eta prezio merkean saltzen, azokan. Lortzen den dirua lankidetzaz-jarduerara bideratzen da.
Maiztasuna	Urteko kanpaina. Bi urteko zikloa, proiektu beraren inguruan.
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Lankidetzaz-ekintzaren hautaketa, sentsibilizazio-jardueretarako aholkularitza, ekarpene ekonomikoa

Hezkuntza Zerbitzua	
Programa	Heziketa-agenda
Maiztasuna	Urtea
Nori zuzendua dagoen	Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasle eta irakasleei, gurasoei eta bestelako kolektiboari
Programaren helburua	Udalaren hezkuntza-jardueren eskaintza, ikasturterako
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	GGKEen eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko jarduerak txertatzea
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	GGKEek eskaintzen dituzten jardueren balorazioa

Gizarte Etxeen Zerbitzua	
Programa	Udako jolasak
Maiztasuna	Urterokoa (asteburu batean)
Nori zuzendua dagoen	Edozein adinetakoei, baina, bereziki, haur eta gurasoei eta nerabeei
Programaren helburua	Jolasak, kalean, hiru auzotan
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	Garapenerako lankidetzaren berariazko txokoa: laguntza- eta lankidetzak-jolasak, bidezko merkataritzako jostailuak
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Eduki eta jardueren diseinuan laguntzea Ekarpenean ekonomikoa

Haurtzaro eta Senitate Zerbitzua	
Programa	Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren onespina ospatzea – azaroaren 20an
Maiztasuna	Urteko, egun batez —azaroaren 20tik gertueneko larunbatean—
Nori zuzendua dagoen	Haur eta nerabeei
Programaren helburua	Haurrekin lotura zuzena duten giza eskubideen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa

Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	Publiko hartzailearentzat egokitutako jarduera ludikoa, aukeratutako gaiaren arlokoa, zein egun horretako programazio orokorrean txertatzen baita. Sektore horretan diharduten GGKEen laguntza izaten du. Garapenean dauden herrialdeetako giza eskubideen inguruko gaiak
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Koordinazioa Ekarpenean ekonomikoa Ekintzak proposatzea

Zerrendatzen diren azken hiru lankidetzak definizio-aldian daude:

AMVISA	
Programa	Futura plana - Uraren Mundu Eguna
Maiztasuna	Urtea
Nori zuzendua dagoen	Ikasleei
Programaren helburua	Gure hiriko uraren eskuragarritasuna eta erabilera beste errealitate batzuekin erlazionatzea, bereziki uraren arloko proiektuak egin diren lekuekin.
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Proiektuak eta erreferentzia-testuinguruak proposatzea

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia	
Gaia	Klima-aldaketa eta garapen iraunkorra Gida-planak dirauen bitartean bideratzen den elkarlana bi gai horien inguruan egituratzea erabaki da.
2016ko ekintzak	Klima-aldaketaren inguruko ekitaldian laguntzea, ekologia sozialaren ikuspegitik, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren 20. urteurrenaren ospakizunaren baitan
Hurrengo urteak	Gerora definituko dira ekintzak.

Gazteria Zerbitzua	
Programa	Zehazteke
Programaren helburua	Hainbat elkartasun-mota —gure inguruan, nazioartean...— eta elkarbizitzaren arloko hainbat alderdi jorratzea aurreikusten da.
Nori zuzendua dagoen	14 eta 18 urte bitarteko gazteei
Ezaugarriak	Gazteek berek kudeatua izan beharko du programak, sorkuntzaren arlokoa, ingurunean esku hartzekoa eta komunikazioa aintzat hartzen duena
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko edukiak	Jasotzaile diren herrialdeetako gazteak inplikaturik dauden lankidetzaren ekintza jakinekin erlazionatuta egon beharko luke, nolabaiteko komunikazioa eta trukea ahalbidetze aldera.
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren laguntza	Aholkularitza, lankidetzaren ekintzaren hautaketa, ekarpen ekonomikoa
Denbora-tartea	Zehazteke dago 2016-2017 ikasturtean ala 2017-2018 ikasturtean jarri ahal izango den martxan. Lehen edizioak izaera pilotua izango du.

5.4.1 Garapenerako hezkuntza eta elkarbizitza

2016an Bizikidetzaren Plana lantzea aurreikusia du Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzuak, zerbitzu horren eskumeneko esparru guztiak aintzat hartuko dituen.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak laguntza eskainiko dio plan horri eta bertatik sortzen diren programa zehatzei; nagusiki, bizikidetzaren nazioarteko dimentsioari dagozkionetan, hots, populazioaren jatorri desberdinekin zerikusia duten kontuetan.

Zaila da jakitea zein izango diren programa zehatz horiek, baina bide batzuk aurreikus daitezke:

- Diru-laguntzak emateko baterako ildo bat edukitzea; izan ere, zaila gertatu ohi da maiz bizikidetzaren edo migratzaileen egoeraren inguruko hainbat alderdi —baita alderdi kulturalak ere— migrazioen kausekin eta jatorrizko herrialdeetako problematikekin zerikusia duten beste batzuekin nahasi ohi diren informazio- edo sentsibilizazio-ekimenak sailkatzea.

- Publiko-segmentu jakinei zuzendutako sentsibilizazio-programak, garapenerako hezkuntzaren eta hiriko bizikidetzaren arloko gaiak biltzen dituztenak. Publiko horiekin zerikusia duten zerbitzuek ere esku hartuko dute programa horietan, hala nola Gazteria Zerbitzuak, Adinekoen Zerbitzuak, Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak edo bestek.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egingarri eta egoki ikusten du bi bide horietan laguntzea. Bereziki, lankidetzaren edo gizarte-eraldaketan agente gisa lehentasunezko zatitza josten ez diren publikoak izaki, uste du egoki dela aldi berean elkartasunaren balioak —nazioarteko dimentsioa barne— eta bizikidetzarenak sustatuko dituzten ekintzak bideratzea.

5.5 Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari dagozkion jarduerak

5.5.1 Komunikazio-estrategia bat definitzea

Aurreko gida-planaren gabezia nagusietako bat hauxe zela esaten zen ebaluazioan: ez zela nahikoa informazioa ematen —behar bezala komunikatzen— lankidetzaren arloan egiten zen lanaren, lortzen ziren emaitzen eta ikusten ziren jardunbide egokien inguruan.

2016an, komunikazio-estrategia bat definitu beharko da, bereziki honako hauek zehaztuz:

- komunikatu nahi den informazio-mota,
- zein publikori komunikatu nahi zaien, eta zeini ematen zaion lehentasuna,
- euskarri, formatu eta estilo egokiak,
- beharko den zabalkundea eta erabili beharreko bideak, publikoaren arabera.

Udal lankidetzaren inplikaturik organitzazioen partaidetza izan beharko du estrategia horrek, informazio egokia lantzen lagundu beharko baitute.

Garapenerako lankidetzaren arloko informazio- eta komunikazio-estrategiak koherentea izan beharko du komunikazio-politika orokorrarekin eta Udalaren gardentasun-irizpideekin.

5.5.2 Informazioa

5.5.2.1 Lankidetzaren proiektuen inguruko informazioa

Lankidetzaren osagaitzat jo dira proiektuekin eta horien testuinguruekin zuzenean zerikusia duten informazio-, komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak. Jarraitasun-proiektuekin zuzeneko lotura duten kolektibo gasteiztarrei zuzendutako sentsibilizazioa proiektu horien ardura duten organitzazioek berek bideratuko dute. Publiko zabalago bati zuzendutako informazioa eta komunikazioa, berriz, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren ardura izango da, eta, batetik, komunikazio-planaren baitan antolatuta beharko da, eta bestetik, berriz, urteko "astea"ren baitan.

5.5.2.2 Urteko oroitidazkia

Urteko oroitidazkia egiten jarraituko du Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, eta Gasteizko Udalaren web-orrian jarriko da eskuragarri.

5.5.3 Elkartasunaren astea

Ematen zaion izena edo formatua edozein delarik ere, 2016an, modu pilotuan, "aste" bat definitu eta gauzatu nahi da, non hainbat jarduera bilduko baitira, bi helbururekin: lankidetzaren edo nazioarteko gaurkotasun-gai nabarmenen bat jorratzea, eta lankidetzaren gasteiztarraren praktika jakin batzuk ezagutzera ematea, inpaktu publiko eta mediatiko handiagoa lortzen ahaleginduz.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua arduratuko da aste horretaz, nahiz eta beste entitate batzuekin batera antolatu ahal izango duen: GGKEen koordinakundea, deialdi-ildo bereko organizazioak, Euskal Fondoa eta abar.

1. Esperientziaren arabera, jarraitutasunik duen ala ez erabakiko da.

5.5.4 Prestakuntza-ekintzak

Irizpide orokor gisa, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak berariazko prestakuntza-ekintzak antolatuko ditu bere lankidetzaren tresnetarako, eta Gasteizko agente lokalei modu esklusiboan zuzenduta.

Esparru horretan, bereziki honako hauek dira antzemandako premiak:

- proiektu eta programak kudeatzeko tresnei buruzko informazioa,
- sektore jakinetan lan egiteko oinarrizko teknikaren alorreko prestakuntza (adibidez: uraren arloko proiektuak, merkaturatzearen arlokoak, eta abar),
- esku hartuko den herrialdeak eta testuinguruak ezagutzearekin zerikusia duen prestakuntza.

Adierazi den bezala, 2016an behintzat entitate txikiei zuzendutako prestakuntza eskainiko da (migranteen kolektiboa barne).

Bestalde, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak beharrezko den gutxieneko prestakuntza bermatu beharko du, lankidetzaren arloan inplikatzaren diren udal langileek modu egoki eta efikazean esku-hartzerik izan dezaten, testuinguru lokala aintzat harturik.

Interes komuneko prestakuntza EAEko beste erakunde batzuekin koordinatzen saiatuko da Garapenean Laguntzeko Zerbitzua —Arabako Foru Aldundia, Euskal Fondoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, unibertsitatea eta GGKEen koordinakundea—.

5.5.5 Beste erakunde eta sare batzuekiko lankidetzaren

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari dagokio Euskal Fondoak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak proposatzen dituen jarduera edo kanpainak Gasteizen antolatzea.

5.6 Kalitatea eta efikazia hobetzeko neurriak

5.6.1 Hezkuntzaren eta generoaren arloko aholkularitza

Garapenerako hezkuntzaren arloko hainbat urterako proiektuetan inplikaturako organizazioek aholkularitza eskatzen badute —dela hezkuntzaren arlokoa, dela genero-ikuspegia txertatzearen arlokoa—, orientazio horretan lagunduko da, bai esperientzia duten udal langileen bitartez —hezkuntza-esparrua edo adin-tartea zein den aintzat harturik—, bai kanpoko baliabideen bitartez.

5.6.2 Ebaluazioa

Jardueren efikazia hobetze aldera, ebaluazioa garapenerako hezkuntzaren tresna gisa integratzea da asmoa, eta, bereziki, garapenerako hezkuntzaren arloko hainbat urterako proiektuen kanpo-ebaluazioa egitea aurreikusten da. Garapenerako hezkuntzaren arloko hainbat urterako proiektuen kanpo-ebaluazio horrek berariazko atal bai izango du, non genero-berdintasunak izan duen tratamendua aztertuko baita.

5.7 Partaidetza


Garapenean Laguntzeko Kontseilua izan da Gasteizko Udaleko partaidetza-organo sektoriala. Etenik gabe funtzionatu du 1999az geroztik. Organo aholku-emailea da. Egindako ibilbideak erakusten du informazio-izaera nagusitu dela; izan ere, Udalak bideratzen dituen programa eta jarduerari nahiz onestea proposatzen duen hitzarmenei buruzko informazio zehatza ematen duen organoa izan da kontseilua. Aurreko gida-planak iraun duen bitartean, aurrekontuaren inguruko arazoek hartu diete gaina kontseiluko eztabaidei.

Une honetan, berrikuste-aldian dago Udalaren partaidetza-eredua, nahiz eta garapenerako lankidetzaren arloan sektore-kontseilu bat mantentzea proposatzen den, funtzionamendu malguagoarekin.

Kontseilu berriak izan behar lituzkeen zereginen artean, hauek ageri dira:

- Garapenerako Lankidetzaren Gida-planaren jarraipena egitea,
- lankidetzaren inguruko gaiak jorratzen dituen udalbatzaren irizpen-batzordeari proposamenak eta gomendioak egitea,
- prestakuntza-espazioa, non organizazioek esperientziak eta jardunbide egokiak aurkeztuko dituzten,
- Hegoaldeko organizazioekiko topaketa- eta truke-lekua, non lankidetzaren esparruko proiektukideak hartzen diren, eta horien esperientzia ezagutzera ematen,
- udal politiken koherentziaren urteko balantzea —garapenari eta nazioarteko elkar-tasunari dagokionez—.

6. BOSGARREN ZATIA: ESTRATEGIA ETA ESPERIENTZIA BERRITZAILEETARAKO LAGUNTZA



Agerikoak dira zailtasunak halako lan-ildo bat zehaztu edo irudikatu nahi delarik —berrikuntzara irekia— eta esperientzia pilotua egin, eta, aldi berean, nolabaiteko zuhurtzia eskatzen du.

Gasteizko Udalaren ikuspegitik, zentzuzkoa da aliantzen edo berrikuntzaren alorrean planteatzen diren ekimenetarako laguntza ematea, eta jarrera irekia eskatzen du horrek. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen da zenbait betebeharrak betetzea:

- Estrategiaren gaiek eta helburuek definituta egon behar dute.
- Nazioarteko dimentsioak, eta Hegoaldearenak, presente egon behar dute.
- Hirian ongi errotutako GGKEen eta organizazio sozialen benetako inplikazioa ekarri behar du berekin estrategiak.
- Bermatuta egon behar du, berdintasun-baldintzetan, Hegoaldeko organizazioen inplikazioak; bereziki, lehendik lotura estuak ezarri diren herrialdeetakoekin.
- Zenbait emaitza zehatz lortzen ahalegindu beharra dago, bizi-baldintzak, giza eskubideen egoera eta beste hobetzen lagunduko dutenak.
- Estrategiaren baitan, ekintza zehatzak egin beharko dira hirian, arlo hauetakoren batean: hezkuntza edo prestakuntza, mobilizazioa, sorkuntza, komunikazioa eta abar.

Betebehartzat jotzen ez bada ere, Hegoa - Hegoa lankidetzak-ekintzak ere —edo hiruren artekoak— ahalbidetu ahal izango dituzte ekimen horiek.

Ekimen horiek ongi zehazte aldera, diru-laguntzarik eman aurretik, eta bidezko bada, identifikaziorako deialdi bat egingo da hasieran, 2016an; hartara, ekimen horiek zehaztu, planifikatu eta dimentsionatzerik izango da. Deialdian, bereziki, adierazitako betebeharrak horiek jasoko dira.

Nolanahi ere, organizazioak ezingo dira aurkeztu, aldi berean, lankidetzak-proiektu kateatuetarako deialdira eta estrategientzako deialdira; aukeratu egin beharko dute batera edo bestera aurkeztu.

Estrategia eta programa berritzaileak identifikatzeko deialdia	
Xedea	2017-2019 aldian gauzatzeko estrategia edo programa berritzaileak identifikatu eta zehaztea
Urtea	2016
Gauzatzeko denbora	6 hilabete
Betebeharrak	Hirian presente egotea eta jarduna errotua edukitzea.
Generoa	Jarduera guztietarako gutxieneko betebeharrak definituta.
	Genero-emaitzak edo inplikazioak definituta.
Sektore lehenetsiak	Ildo honen ezaugarriak direla eta, ez da sektorerik lehenesten.


Gerora, deialdi kateatu bat egingo da, estrategia edo programa berritzaile bakan batzuk benetan garatzeko, 2017-2019 aldian.

Urte batetik hurrengorako jarraipena baldintzatuta egongo da; organizazio arduradunekin batera definituko diren emaitza edo irizpide jakin batzuk bete beharko dira.

Estrategia eta programa berritzaileetarako deialdia	
Xedea	2017-2019 aldian gauzatzeko estrategia edo programa berritzaileak identifikatu eta zehaztea
Urtea	2017
Denbora-tartea	3 urtean zehar —2017, 2018 eta 2019— garatzeko programa edo estrategiak Deialdi kateatua: Hasierako urtea, 2017. 2018an eta 2019an, 2017an onetsitako ekimenentzat erreserbatuta egongo da deialdia.
Gauzatzeko denbora	12 hilabete (urteko diru-laguntza)
Betebeharrak	Hirian presente egotea eta jarduna errotua edukitzea. Zehaztasunez definitutako estrategia edo programa.
Jarraitzekotan bete beharrekoak	Definitzen diren emaitza eta irizpideak betetzea
Generoa	Programa guztietarako definitutako gutxieneko betebeharrak
	Genero-emaitzak edo inplikazioak definituta
Sektore lehenetsiak	Ildo honen ezaugarriak direla eta, ez da sektorerik lehenesten.

Lan-ildo berria izaki, beharrezkotzat jotzen da 2019an gutxienez estrategia edo programe-tako bat ebaluatzea, ildoaren jarraipenaren inguruko irizpideak ezatzeko.

**7. SEIGARREN ZATIA:
PLANAREN ERAGINKORTASUNA
- BALIABIDEAK, EMAITZAK ETA
EBALUAZIOA**



7.1 Giza baliabideak

Eutsi egingo zaio Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren gaur egungo egiturari —hiru teknikari-lanpostu—, eta programakoa den lanpostua finkatuko.

Bidenabar, atal honetan, balioestekoa da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari laguntza ematen dioten hainbat udal zerbitzutako langileen dedikazioa.

7.2 Garapenerako lankidetzarako aurrekontua

Gasteizko Udalak konpromisoa hartzen du garapenerako lankidetzara udal aurrekontuen % 0,7aren eta % 1aren arteko diru-kopurua bideratzeko, 2016-2019 aldirako gida-plan hau indarrean den bitartean.

Lankidetzarako aurrekontua onesteko portzentaje hori kalkulatzeko orduan, honela jokatuko da:

- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren diru-laguntzen partidak —gastuen 4. kapituluak— eta kontratazioak —gastuen 2. kapituluak— sartuko dira lankidetzarako aurrekontuan, eta bazter utziko, aldiz, zerbitzu horretako langileen kostuak¹⁷ —gastuen 1. kapituluak—.
 - Udalaren ohiko diru-sarreraren baturatzat joko da udal aurrekontua —diru-sarreraren 1-5 kapituluak—.
- Urteko oroitidazkiari eta benetan egindakoari buruzko informazioari dagozkienetarako:
- Gauzatutako partidak bakarrik zenbatuko dira.
 - Urteko ohiko diru-sarrera errealei egingo zaie erreferentzia, hau da, diru-sarreraren 1-5 kapituluetan abenduaren 31rako onetsitako eskubideei.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak irizpide bat du toki-erakundeek garapenerako laguntza ofizialera bideratzen duten portzentajea kalkulatzeko, zein baita garapenerako lankidetzara bideratutako gastu osoaren eta Udalaren aurrekontu finkatu osoaren arteko zatidura. Beraz, behar diren datuak emango zaizkio koordinakundeari, aurreko urtean portzentaje hori zenbatekoa izan zen kalkulatzeko:

- Benetan gauzatutako lankidetzarako partiden zenbatekoa, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko langileen kostuei dagokien gastua —gastuen 1. kapituluaren baitako partidak— eta AMVISAK lankidetzara benetan bideratutako aurrekontua.
- Udalaren aurrekontu bateratua, eskuragai dagoenean.

¹⁷ Baita beste zerbitzu batzuetako langileek emandako denboraren balorazioa ere, zaila bailitzateke kalkulatzeko

7.3 Aurrekontuaren banaketa, arlo eta tresnen arabera

Gida-planak ez du proposatzen garapenerako lankidetzarako aurrekontuaren banaketa zehatzik arlo, tresna eta agenteen artean, ezta gutxieneko eta gehienekorik finkatzen ere.

Nolanahi ere, irizpide hauek ezartzen dira, orientazio gisa:

- lankidetzarako aurrekontu osoaren eta sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloa bideratzen denaren arteko proportzioari eutsi, % 14aren inguruan,
- diru-laguntzen % 10 Euskal Fondoarekiko hitzarmeneko urteko programara bideratu, baldin eta proiektuek eska daitezkeen kalitate-betebeharrak betetzen badituzte,
- garapenerako lankidetzaren arloko diru-laguntzen gehienez ere % 30a ematea hitzarmenen bitartez, eta gainerakoa konkurrentzia-sistemen bitartez esleitzea, hau da, deialdien bitartez.

7.4 Planaren emaitzak eta adierazleak

Aurrekontuaren inguruko adierazle orokorrez gain, gidalerroekin zerikusia duten beste batzuk ere definitzen dira. Burututako lankidetzara mota ezaugarritzen duten adierazleak ere proposatzen dira.

Eraginaren adierazleak —bai lankidetzara proiektuek berekin dakarten bizi-baldintzen hobekuntzari dagokionez, bai garapenerako hezkuntzaren emaitzei dagokienez— onesten diren proiektuen arabera definitu beharko dira.

Nolanahi ere, aintzat hartu beharra dago zaila izan ohi dela esanguratsuak izango diren adierazleak definitu eta jasotzea, hasierako datuekin alderatzeko modukoak eta kostu handirik gabe eskuratuak. Beraz, berrikusi egin beharko da proposatutako adierazleak errealistak diren.

7.4.1 Urteko aurrekontuen gaineko adierazle orokorrak

Adierazlea	2010-2014ko batez bestekoa
Gauzaturako aurrekontuaren % / diru-sarreraren 1-5 kapituluak (onetsitako eskubideak)	% 0,62
Geografia-eremuen arabera banaketa	
Garapenerako lankidetzako ekintzetara bideratutako aurrekontuaren %	% 73,29
Ekintza humanitarioetara eta larrialdikoetara bideratutako aurrekontuaren %	% 11,39
Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren alorreko ekintzetara bideratutako aurrekontuaren %	% 13,63
Bestelakoetara —jarraipena, ebaluazioak, azterlanak, trukeak— bideratutako aurrekontuaren %	% 1,69
Aktoreen arabera banaketa	
GGKEk kudeatutako aurrekontuaren %	% 79,56
Beste erakunde sozial batzuek kudeatutako aurrekontuaren %	% 6,07
Euskal Fondoak eta erakunde edo programa munizipalistek kudeatutako aurrekontuaren %	% 9,94
Nazioarteko erakundeek kudeatutako aurrekontuaren %	% 0,00
Zuzeneko kudeaketaren aurrekontuaren %	% 4,43
Tresnen arabera banaketa	
Hitzarmenen bitartez esleitutako lankidetzarako aurrekontuaren %	% 28,90
Konkurrentziaren bitartez —deialdiak— esleitutako lankidetzarako aurrekontuaren %	% 68,07
Kontratazioen bitartez esleitutako lankidetzarako aurrekontuaren %	% 3,03

7.4.2 Gidalerroekin erlazionatutako adierazleak

Era berean, emaitza nagusiak eta adierazle soilak zehaztu daitezke, definitutako gidalerroen ildotik.

Zk.	Gidalerroa	Adierazlea	2010-2014ko batez bestekoa
1	Elkartasuna —topaketa gisa— eta herritartasun globala.	Trukeak nahiz komunikazioa berekin dakarten proiektu edo programak	Lankidetzaproiektuen %
			Lankidetzarako aurrekontuaren %
		Egindako trukeak	Trukeen kopurua
2	Giza garapen lokaleko prozesu jarraituak	Lankidetzaproiektu jarraituak	Lankidetzaproiektuen %
			Lankidetzarako aurrekontuaren %
3	Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea	Genero-adierazlea	Lankidetzaproiektuen %
			Lankidetzarako aurrekontuaren %
		Genero-adierazlea	SetaGHko proiektuen %
			SetaGHko aurrekontuaren %
4	Bizikidetzarako lankidetzak	Migratzaile-kolektiboek ekimeneko proiektuak	Lankidetzaproiektuen %
			Lankidetzarako aurrekontuaren %
		GGKEen eta migratzaile-kolektiboek arteko lankidetzak esperientziak	Lankidetzaproiektuen %
		Bizikidetzarako truke profesionalak	Beste esperientzia batzuk
		Bizikidetzaren ikuspegia beren baitan hartzen duten sentsibilizazio-ekimenak	Kopurua
			Kopurua
			SetaGHko aurrekontuaren %
5	Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua bultzatzea	Bidezko merkataritzarekin zerikusia duten lankidetzaproiektu edo ekimenak	Kopurua
			0

Zk.	Gidalerroa	Adierazlea		2010-2014ko batez bestekoa
6	Eraldaketerako nazioarteko baterako ekintzaren alorreko esperientzia eta estrategiak	Estrategia edo programak	Estrategia- edo programa-kopurua	
			Diru-laguntza guztien %	
		Inplikaturako GGKEak	GGKEen kopurua	0
		Inplikaturako beste herritar-entitate batzuk	Entitate-kopurua	0
7	Udalaren inplikazioa areagotzea	Lankidetzaproiektuen berrikuspen teknikoak	Berrikusitako proiektuen kopurua	
			Berrikusitako proiektuen %	
		Elkarlana, onetsitako lankidetzaproiektuetan	Elkarlan erregularren kopurua	0
		Egindako misio teknikoak	Misioen kopurua	
			Teknikarien kopurua	
		Zuzeneko hitzarmenak	Hitzarmen-kopurua	
			Aurrekontuaren %	
SetaGHren arloko elkarlanen kopurua	Kopurua			
8	Kalitatea eta efikazia hobetzea	Identifikatu diren proiektuak, edo alde aurretik identifikatu zirenak	Proiektu-kopurua	
			Berrikusitako proiektuen %	
		Ebaluatutako proiektuak	Ebaluatutako proiektuen kopurua	
			Proiektuen %	
		Prestakuntza- eta bateratze-ekintzak	Kopurua	
9	Lankidetzan diharduten erakunde publikoekin koordinatzea	Beste erakunde batzuekiko hitzarmenak	Kopurua	
			Lankidetzarako aurrekontuaren %	
		Burututako lankidetzakimena	Kopurua	

7.4.3 Lankidetzamota ezaugarritzen duten adierazleak

Lankidetzamota ezaugarritzen duten hainbat adierazle definitzen dira, ekintzak, banaketa geografikoa eta esku hartzen duten agenteak aintzat harturik.

Adierazlea		2010-2014ko batez bestekoa
Lankidetzaproiektuak ¹⁸	Proiektu-kopurua	31
Proiektu bakoitzeko batez besteko finantzaketa	Proiektu bakoitzeko batez besteko finantzaketa (euroak)	62.861,42
Geografia-adierazleak		
Lankidetzagaiztzen den herrialdeak	Herrialde-kopurua	33 (garapenerako lankidetzak, 25; Larrialdietarako Arabako Funtsa, 8)
Herrialde bakoitzeko zenbatekoa	Euro/herrialde	
Proiektuen lokalizazioa	Lokalizazio-kopuruak	57 (garapenerako lankidetzak, 43; Larrialdietarako Arabako Funtsa, 14)
Lankidetzaren agenteekin erlazioatutako adierazleak		
Agente lokalak	Agente lokalen kopurua	
GGKEak	GGKEen kopurua	
Garapen-bidean dauden herrialdeetako proiektukideak	Proiektukide-kopurua	
Proiektukide egonkorak (3 urte edo gehiago)	Proiektukide egonkorren kopurua	

7.4.4 Bizi-baldintzekin erlazioatutako emaitzen arloko adierazleak

Proiektu-ziklo berriei ekingo zaienez —gehienak hainbat urterako proiektuak—, eta horien arteko asko deialdien bitartez aukeratuko direnez, ez da baliagarria proiektu bakoitzaren emaitza zehatzen gaineko adierazleak alde aurretik definitzea, bizi-baldintzen hobekuntzaren arloan.

18 Kontuan izanik programa edo hitzarmen berak hainbat proiektu har ditzakeela bere baitan.

Proiektu bakoitzeko gutxienez adierazle esanguratsu bat ezarriko da, bizi-baldintzetan gertatzen den hobekuntza neurtu ahal izateko.

Adibide gisa, era honetakoak izan litezke adierazle horiek:

Adierazlea		2010-2014ko batez bestekoa
Oinarrizko zerbitzuak erabiltzeko aukera (adibidez: ura, saneamendua eta abar)	Pertsona-kopurua, planak dirauen aldiak. Sexuaren arabera bereizitako datuak.	
Alfabetatzea, hezkuntza, prestakuntza	Dena delako tituluak eskuratzen dituzten pertsonen kopurua. Sexuaren arabera bereizitako datuak.	
Babesa eta laguntza	Programen baitan laguntza eta babesa eman zaien pertsonen kopurua. Sexuaren arabera bereizitako datuak.	

7.4.5 Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloa

Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan, zailtasun espezifikoetara aurre egin behar zaie adierazleak definitzeko orduan, bereziki inplikaturako aktore eta jardueren aniztasunagatik eta azken horien intentsitate —ordu-karga, inplikazio...— desberdinengatik. Horregatik, oraingoz adierazlerik ez definitzea erabaki da. 2016an zehar, onesten diren garapenerako hezkuntzako proiektuak aintzat harturik, adierazle-kopuru mugatu bat definituko da: adierazle egokiak, emaitzak ongi erakutsiko dituztenak, eta datu-bilketa egiteko gehiegizko ahaleginik eskatuko ez dutenak.

Horrenbestez, adierazle bakar bat ematen da hemen, uste izan baita bere horretan gertatuko dela hori:

Adierazleak		2010-2014ko batez bestekoa
Garapenerako hezkuntzaren arloko prozesu jarraituetan inplikaturako kolektiboak	Kolektibo-kopurua	
	Pertsona-kopurua. Sexuaren arabera bereizitako datuak.	

Bidezko merkataritzako erosketen dagoekinez, adierazle hau zehazten da:

Adierazleak		2015eko datuak
Udal zerbitzuak bidezko merkataritzarekin egindako kontratazioak	Kontratazio edo dossierren kopurua	1 ¹⁹
	Kontratazioaren zenbatekoa, guztira ²⁰	1.652 €

7.4.6 Berrikuntza-estrategia eta -programak

Onesten diren estrategia edo programetarako egoki diren adierazle gutxi batzuk definituko dira.

7.5 Planaren jarraipena

Urtero, plana zenbateraino bete den azaltzen duen txostena aurkeztuko zaio Garapenean Laguntzeko Kontseiluari —adierazleei buruzko datuekin—.

Garapenean Laguntzeko Kontseiluak bere balorazioa egiten duelarik, Lankidetzako Irizpen Batzordeari helaraziko dio.

7.6 Planaren ebaluazioa

2016an, aholkularitza teknikoak kontratatuko da, planaren indarraldi osoan horren ebaluazioa egiteko sistema bat definitu dezan. Aholkularitza horrek, bereziki, proposaturako adierazleak berrikusi beharko ditu, eta ebaluazioaren uneak definitu.

Definitzen den ebaluazio-sistema gorabehera, 2019an —kanpoko laguntzarekin— planaren azken ebaluazioa egitea aurreikusten da.

Tresna desberdinak bereizi beharko ditu ebaluazioak, ezarritako emaitzetan eta adierazleetan oinarritu, eta inplikaturako aktoreen lagin esanguratsu baten iritziak jaso, garapenean dauden herrialdeetakoekin barne.

19. San Prudentzio egoitzarako elikagaiak hornitzeko kontratua.

20. 2015eko ekainetik abendura.